



#### 4. BERDINTASUNAREN UDAL JARDUNALDIAK

2007ko azaroak 8-9  
Galdakaoko Musika Eskola



GALDAKAOKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO  
Aukera Berdintasun Arloa  
Area de Igualdad de Oportunidades



# **Generoa eta GIZA ESKUBIDEAK**

## **4. BERDINTASUNAREN UDAL JARDUNALDIAK**

**2007ko azaroak 8-9**

**Galdakaoko Musika Eskola**

IZENBURUA: 4. Berdintasunaren udal jardunaldiak. "Generoa eta giza eskubideak"  
EGILEA: Galdakaoko Udala. Aukera Berdintasuneko Politiken Arloa  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua  
ITZULPENA: Hori-hori SAL  
ALE-KOPURUA: 200  
DATA: 2008ko ekaina  
INPRIMAKETA: Gráficas Santamaría  
L.G.: VI-225/08

# Aurkibidea

---

<b>INAUGURAZIOA</b>	
Joseba Escribano Etxebarria jauna .....	7
Iñigo Iturrate Ibarra jauna .....	9
Iñigo Lamarca Iturbe jauna .....	11
<b>JARDUNALDIAREN HASIERA</b>	
Meritxell Elguezabal andrea .....	13
<b>EMAKUMEEN ESKUBIDEAK: ORAINA, IRAGANA ETA ETORKIZUNA</b>	
Miren Ortubay Fuentes andrea .....	15
<b>EGUN DUGUN ERREALITATEA, GIZA ESKUBIDEAK LORTZEKO BIDEAN AL DA?</b>	
Begoña San José Serrán andrea .....	23
<b><i>MAHAI-INGURUA</i>: EMAKUMEEN AURPEGI DESBERDINAK: POBREZIA, INDARKERIA, PROSTITUZIOA, INMIGRAZIOA, ERREFUXIATUA...</b>	
Daniel Álvarez jauna (moderatzailea)	33
M <sup>a</sup> Jesús Pérez Ruiz andrea	
Itziar Caballero González andrea	
Marian Arias Roncero andrea	
Ana Txurruka Etxezarreta andrea	
Teresa González Garzón andrea	
<b>GATAZKA BELIKOEK EMAKUMEENGAN DUTEN ERAGINA</b>	
M <sup>a</sup> Vilellas Ariño andrea .....	45
<b>EMAKUMEAK GATAZKAK KONPONTZEKO PROZESUETAN</b>	
Ainhoa Aznarez Igarza andrea .....	51
<b><i>MAHAI-INGURUA</i>: KULTURGINTZA VERSUS GIZA ESKUBIDEAK .....</b>	
Ana Grís andrea	57
Begoña Pecharromán andrea	
Ainhoa Flecha Fernández de Sanmamed andrea	
<b>AMAIERA</b>	
Leire Castillo Galán andrea .....	67



# INAUGURAZIOA

**Joseba Escribano Etxebarria jauna**

*Galdakaoko Udalaren Alkatea*

---

Ongietorri Iñigo Lamarca Iturbe Arartekoari eta Iñigo Iturrate Ibarra Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendari Nagusiari.

Hasteko, Irene Kant Amnistia Internacional-eko Idazkari Nagusiaren istorio bat kontatu nahi nizuke. Irene Kantek Wilmington saria irabazi zuen duela urte batzuk, Giza Eskubideen eta, bereziki, emakumeen Giza Eskubideen defentsaren eremuan egindako lanaren errekonozimendu gisa.

Kantek izugarritzko itxaropena zuen "emakume arrunt" baten istorioa kontatu zuen. Emakumeak Zubaida zuen izena, afganiarra zen eta Irene Kantek errefuxiatu-esparru batean ezagutu zuen, Pakistango mugan. Burka zikin eta zaharkitu bat zuen soinean, begiak agerian utzi arren gorputza burutik hasi eta oinetaraino estaltzen ziona. Senarraren aldamenean eserita zegoen eta haur bat zuen bere magalean. Kantek bere herrialdera itzultzean zer egingo zuen galdetu zion emakumeari. Kantek uste zuen emakumeak bere haurrari eta bere senarrari buruz hitz egingo ziola, errefuxiatu-esparruko beste emakume batzuk egin zuten moduan. Emakume hark, ordea, begiratu eta zalantzarik gabe erantzun zion "etxera itzuliko naiz zientziak ikasteko eta zientzialaria izateko". Emakume txiroa eta alfabetatu gabea zen, hamar urteko gerrak suntsitutako bere herrialdera itzultzen zena, baina bere ametsa alde batera utzi ez zuena. Irene Kantek bere hitzaldia bukatu zuen, "afganiar hau bezalako emakumeek itxaropena duten bitartean, guk galdu ezin dugula" azpimarratuz.

Zubaida bezalako emakumeek gainontzekoentzako inspirazio iturri dira. Mundu guztian beren giza eskubideen aurkako gehiegikeriak pairatu arren, bizitza hobea bat izateko itxaropena galtzen ez duten emakumeak.

Istoria hau interesgarria da bere sakonera eta mezua direla eta. Hala ere, ez dugu urrutira joan beharrik giza eskubideak gizarte aberatsetan ere errespetatzen ez direla egiaztatzeko. Jakin badakigu hemen, herrialde honetan, emakume askok tratatu txarrak pairatzen dituztela.

Lehen munduko beste leku batzuk aipatzearren, AEBetan emakume batek tratatu txarrak pairatzen ditu 15 segundoro. Mundu guztian zehar hedatuta dagoen kultura marxistak emakumeen aurkako indarkeria bultzatzen du. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, emakumeen aurkako diskriminazio mota oro ezabatzeari buruzko Konbentzioa eta beste tratatu, lege eta deklarazio batzuk ere existitzen diren arren, gaur egun ez dago emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasunik. Emakumeek pairatzen dituzten gehiegikerien atzean gizarteak berak iraunarazten duen diskriminazioa dagoela ere esan liteke. Eta gai horri dagokionez gure erantzukizuna ere kontuan hartzekoa da. Ezinezkoa zaigu giza eskubideei buruz hitz egitea emakumeen eskubideak errespetatzen ez baditugu.

Horrela bada, bi egunetan zehar gure gizartean pil-pilean dugun arazo honi buruz jardungo dugu, ikuspegi anitzetan oinarrituta, ezberdintasunek, murriztu diren arren, begien bistakoak izaten jarraitzen baitute.

Horrenbestez, Galdakaoko udalak foro hau sustatu du elkarbizitza zein elkar ulertzea ahalbidetzeko zein gure inguruko emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio motei aurre egiten saiatzeko.

Eremu ezberdinetan XXI. mendea emakumeen mendea izango dela iragarri dute. Aurreko mendeko iraultzarik handiena islatu zuen mugimendua inortxok ere geldiarazi ezingo duela adierazi dute.

Berdintasuna oztopatzen duten gabeziak identifikatzeko eta hutsuneak konpontzeko lan egin beharko dugu. Soilik horrela, denok batera, hezkuntzatik hasi eta politikarainoko esparru guztietan, enpresatik kalera, ahalbidetuko dugu emakumeen eskubideen guztizko berdintasuna errealitate bihurtzea, guztiok, gizon zein emakume, Zubaidaren antzera (errefuxiatua izatetik zientzialaria izatera igaro nahi zuen emakume afganiarra), bizitza hobea baten itxaropena izaten jarraitzen baitugu.



# INAUGURAZIOA

**Iñigo Iturrate Ibarra jauna**

*Berdintasun eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendari Nagusia.  
Bizkaiko Foru Aldundia*

---

Duela gutxi, EMAKUNDEK antolatutako jardunaldi batzuetan, Andres Moreno psikologoak honakoa esan zuen: "Giza Eskubideen Deklarazioak onetsitako 30 eskubideetatik, indarkeria matxistako kasu bakoitzean, emakumeen aurkako eraso bat gertatzen den bakoitzean, haietako hemezortzi urratzen dira, %50etik gorako kopurua adierazten duena". Hori dela eta, beharrezkoa da gaur Galdakaon Generoari eta Giza Eskubideei buruz inauguratzen ditugun jardunaldiak bezalakoak antolatzea. Izan ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, genero politikei edo ekintza positiboko neurriei buruz hitz egiten dugunean, Giza Eskubideei buruz mintzo gara.

Hala eta guztiz ere, onartu beharra dago emakumeen eskubideak askatasunen eta oinarritzko eskubideen nazioarteko idealean txertatzea ez dela berez gertatu. Aitzitik, historia garaikideko lorpen garrantzitsua izan da.

Zentzu honetan, Giza Eskubideak berriro ere definitzeak, genero ikuspegitik, araugintza eta instituzio izaerako neurriak sustatzea eta Berdintasun Printzipioa politika publikoetan txertatzea ahalbidetuko ditu. Era berean, esparru publikotik geroz eta gehiago, emakumeen bizi baldintzekin oso lotuta dauden eta tradizionalki pribatu gisa zehaztutakoak eta kulturalki urratutakoak izan diren eskubideei buruz hitz egitea eragin du. Azken horien artean daude sexu eta ugaltze eskubideak, oinordekotza eskubideak, praktika patriarkalak, etab.

Izan ere, giza eskubideak urratzen diren kasuetan emakumeak izan ohi dira beti kalte-tuetuenak. Horren adierazgarria da txirotasunak munduan emakumeei eragiten diela batik bat.

Txirotasunaz gain, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna eskubideen urraketara fina ere bada, emakumeen oniritziaren eraginez etengabe luzatzen den neurrian. Hori hezkuntza estereotipatuaren ondorioa da, gizon eta emakume ugari desberdintasuna ohikoa den zerbait bezala bizitzea eragiten duena; are gehiago, emakumea izatearekin lotuta dagoen zerbait balitz bezala bizitzea eragiten duena. Horregatik, Federico Mayor Zaragozaren hausnarketa batzuk gurera ekarri, argi dago emakumeen, eta azken horien bitartez etorkizuneko belaunaldien, hezkuntza eta kontzientziazioa giza garapenean eta, zehatzagoak izate aldera, desberdintasunak gainditzeko prozesuan, ezinbestekoak direla. Azken finean, gizarte berri batera eramango gaituen aldaketa eragitea.

Administrazio publikoak, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundia, derrigortuta daude Ongizatearen Estatuaren alde lan egitera eta, horrenbestez, aldaketaren agente aktibo izan behar dute. Horren ildotik, 2005ean Eusko Legebiltzarrak eta 2007an Diputatuen Kongresuak gizon eta emakumeen aldeko Berdintasunerako Lege garrantzitsuak onetsi zituzten; hori ongi dago eta beharrezko hobekuntza da gizon eta emakumeen egiazko berdintasunaren bidean aurrera egiteko. Baina beharrezkoa izatea ez da nahikoa; ezin gara berdintasunaren liluran geratu harekin lotutako legeak onartze soilaren ondorioz. Oraindik ere gizon eta emakumeak ez gara berdinarak eta, araugintzaren eremuan aldaketak gertatu diren arren, tratatu ezberdin eta diskriminatzaileko egoerak gertatzen dira.

Horregatik, herritarrek zein administraziook lan handia dugu oraindik egiteko. Hala ere, gaur egun lan handiena egitea gizonei dagokie, eta ez emakumeei.

Ezin dugu ahaztu Giza Eskubideak generoaren ikuspegitik berriro ere definitzea emakumeen borrokari esker posible izan dela neurri handi batean. Emakumeek dagoeneko beharrezko urratsak eman dituzte berdintasuna lortzeko, berdintasunaren alde borrokatzeko. Gizonak borroka horretan parte hartzeko eta rol aldaketan inplikatzeko unea iritsi da, euren pribilegioei uko eginez, bidezkoagoa eta berdintasunezkoa izango den gizartea lortzeko.

Zalantza izpirik gabe, emakumeak dira indarkeria matxistaren biktimak, baina genero indarkeriak ez die eurei soilik eragiten. Emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ondorio zuzenak dituzte emakumeengan, baina gizonek parte hartze aktiboa dute prozesu horretan. Horregatik, injustizia horiek zuzendu eta emakume eta gizon guztien Giza Eskubideen errespetua bermatu nahi izanez gero, gizonak dira aldatu behar dutenak eta beharrezko iraultza egin behar dutenak.

Hemendik gizon guztiei eskubide berdintasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko beharrezkoa den abentura honi ekiteko deia egiten diet.

# INAUGURAZIOA

Iñigo Lamarca Iturbe jauna

*Ararteko*

---

Emakumeen duintasuna, askatasuna eta berdintasuna bezalako eskubide oinarritzkoenak onartzea giza eskubideekin lotutako kontua da. Eta zentzu horretan, emakumeen oinarritzko eskubideak onartzea errealitate bihurtuz joan den neurrian, giza eskubideen sistema eta demokrazia bera ere handitu egin dira, giza eskubideak sistema demokratiko ororen bizkarrezurra baitira.

Gaur egun ezinezkoa litzaiguke emakumeei bozkatzeko eskubidea galarazten dien sistema bat demokratikoa dela ziurtatzea. Hala ere, mende bat baino epe luzeagoan analista eta historialariek giza eskubideetan oinarritutako sistema hura demokratikoa zela esaten zuten ezbairik gabe, sistemak berak biztanleen %50etik gorako kopuruari bozkatzeko eskubidea bezalako oinarritzko eskubidea ukatzen zion arren. Egoera hori mende batetik gora errepikatu izan da eta herrialde batzuetan oraindik ere emakumeek ez dute bozkatzeko eskubiderik.

Mugimendu feminista emakumeen eskubideek bizi izan duten aurrerakuntzaren sustatzailea, motorra eta, beraz, hura merezi zuena izan da. Aipatutako mugimenduak ez ditu sekula indarkeria edo bortxa erabili bere eskubideak aldarrikatzeko. Zentzu horretan, izugarriak dira Britainia Handiko lehen sufragisten irudiak, bozkatzeko eskubidea aldarrikatzeagatik sakabanatuak izan zirenenak. Garai hartako argazkietako irudietan poliziak aipatu emakumeak iletik tiraka nola eramaten dituen ikus daiteke, emakume haiek indarra erabili beharrean arrazoiaz, argudioez eta hitzaz baliatu zirela kontuan hartuta. Horrenbestez, zalantzarik gabe gizadiaren historiako mugimendu handienetakoa dela esan genezake. Lehenik eta behin, biztanleen %50etik gorakoen oinarritzko eskubideak

onartu zitezela lortu zuelako, iraultzailea eta historikoa erabat, eta bigarrenik, horretarako sekula indarkeriaz eta bortxaz baliatu ez delako. Horrek ospe handiagoa eman dio.

Gizadiak eta giza eskubideen instituzioek omenaldi izugarria zor diote aipatu mugimenduari, oraindik ere halakorik egin ez den arren, mugimendu feministaren sustatzailei zein gizadiaren historia guztian mugimendurik handienetakoa izandako honetan borrokatu diren eta borrokatzen jarraitzen duten emakume guztiei dagokienez.

Egun beharrezkoa da paradoxa krudel bati aurre egitea, emakumeen oinarrizko eskubideak onartzen ditugun heinean gizon matxistek, indarraz baliatzen diren trogloditek, geroz eta freno handiagoak jartzen baitizkiete eskubide horiei. Beste behin, arrazoiaren indarraren eta indarraren arrazoiaren arteko gatazkaren aurrean gaude. Indarraren arrazoa, gizon matxista primitiboek darabiltena. Mugimendu matxistaren ideologia gogorren erdian indarra eta biolentzia daude, hots, indarkeriaren legitimizazioa dago eskubideen, justiziaren, arrazoiaren gainetik norberak nahi duena lortzeko, arrazoiak nahikoak ez badira "potroak" dituztelako. Hori da matxismoaren ardatza, bere balioak eta, beste batzuen artean, indarkeria legitimizatzeko balioa.

Zentzu horretan, funtsezkoa da gizarte osoa feminista bihurtzea. Feminismoaren balioak direlako, hain zuzen ere, emakumeen eskubideek aurrera jarrai dezaten berme nagusia. Oraindik ere asko dugu egiteko, bai hemen eta bai emakumeen eskubide oinarrizkoenak sistematikoki zapaltzen dituzten planetako herrialde askotan.

Horrenbestez, feminismoaren balioak errebindikatzen ditut eta uste dut guztiok errebindikatu beharko genituzkeela, gizarteak emakumeen oinarrizko eskubideak onartzeko bidean aurrera jarrai dezan egokiena den berme gisa. Hori gizartearen eta herritarren giza eskubideak hedatzearen eta sakontzearen eta demokrazia handitzearen eta hobetzearen parekoa da. Emakumeen oinarrizko eskubideen bidetik aurrera jarraitu behar dugu.

# JARDUNALDIAREN HASIERA

Maritxell Elguezabal andrea

*Galdakaoko Udaleko Zinegotzia*

---

Galdakaon antolatu diren Berdintasunari buruzko laugarren Herri Jardunaldi hauetan, entzule gisa etorri den orori eta hizlariari eta, bereziki, Iñigo Lamarcari eta Iñigo Iturrateri nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet.

Aurtengo Jardunaldietan gai nagusia Generoa eta Giza Eskubideen ingurukoa izango da. Foro honen bitartez lortu nahi duguna, nolabait, tolerantzia, aniztasunarekiko errespetua, elkarbizitza eta elkar ulertzea ahalbidetuko dituzten dinamiketan sakontzea da. Jardunaldi hauen bitartez, emakumeek gure gizartean egunero pairatzen dituzten diskriminazio motei ahotsa, posible den neurrian, eta erantzuna eman nahi dizkiegu.

“Generoari eta Giza Eskubideei” buruz hitz egiten dugunean, kontuan izan behar dugu bi kontzeptu horiek elkarrekin oso lotuta daudela. Giza Eskubideei buruz hitz egiten dugunean, denoi etortzen zaigu burura zein kontzeptu globali egiten dion erreferentzia, planteamendu politiko eta ideologiko ezberdinak, arrazak, etniak, gizon eta emakumeen arteko genero egoera ezberdina barne hartzen dituen kontzeptua.

Aniztasun hori antzeman ohi dugun arren, bertan gertatzen da diskriminaziorik handiena, beharrezkoa da hortik abiatuta urratsak ematea eta dinamikak topatzea egoera mota honi aurre egiteko eta konponbide bat lortzeko.

Jarraian gaur goizeko hizlariak aurkeztuko dizkizuet.



# EMAKUMEEN ESKUBIDEAK: ORAINA, IRAGANA ETA ETORKIZUNA

**Miren Ortubay Fuentes andrea**

*Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko irakaslea eta  
María de Maeztu Forum Feministako kidea*

---

Antolatzaileei nire eskerrona adierazi nahi diet emakumeen eskubideen defentsan inplikaturik dagoen hainbeste jenderen artean topaketa hau posible egin izanagatik eta, batik bat, mahai honetan Begoña San Josekin esertzeko aukera eskaini izanagatik. Izan ere, emakume hau asko miresten dut, hausnartzeko duen gaitasuna, bere analisiaren sakontasuna zein berdintasunaren alde duen konpromiso aktiboa eta etengabea direla eta... Era berean, izugarri eskertzen diot lan honetan aurrera jarraitzeko emakume guztioi ematen digun indarra.

Begoña San Josek emakumeen eskubideei buruzko ikuspegi globalagoa eskaini digu, azken horiek giza eskubideekin parekatuz. Horregatik, ni eskubide horien bilakaeran zentratuko naiz eta nire hitzaldia garai ezberdinetan banatuko dut.

## 1. BILATUTAKO EZBERDINTASUNA

Frantziako Iraultza eta horren ostean sinatu zen "Gizakien eta Herritarren eskubideen Deklarazioa" lehendabiziko desilusio handia izan zen emakumeentzat. Momentu historiko hartan aldarrikatu zen lehendabiziko aldiz izaki –pertsona– orok eskubideak zituela eta pertsona guztiak aske eta berdintasun egoeran jaiotzen zirela. Eta emakumeek

iraultzaren aldarrikapen horiek sinetsi zituzten eta, horrenbestez, herritarren, "pertsonek" artean, zeudela pentsatu zuten. Baina oker zeuden. "Askatasun eta berdintasun" idealei traizio eginez, emakumeak aldarrikapen horietatik kanpo geratu ziren, emakumeak "naturarekin" identifikatuz justifikatu zena. Ezberdintasun biologikoetan oinarrituta, emakumeen funtsa beren ugaltze funtziora murriztu zen. Amelia Valcarcelek dioen bezala, "emakumea eme bihurtu zen".

Hala ere, nabarmendu beharra dago botere patriarkala ez dela mugatzen "naturari" jokatzeko uztera, gizaki bakoitza ahal duen bezala garatzen uztera. Aitzitik, ezberdintasun naturalei eragiten die eta aipatutako horiek handiagotzen ditu: emakumeak kontrolatzen dituzten eta beren aukerak mugatzen dituzten legeak sortzen ditu; eskubideak ukatzen dizkie... Ezberdintasun biologikoetatik abiatuta eraikitzen da ezberdintasun soziala, diskriminazioa. Generoaren arabera rol banaketa hierarkizatu egiten da eta gizonei dagozkienei ematen die lehentasuna.

Rol banaketaren ezberdintasun hau, legez indartutakoa, diktadura frankistan zehar mantendu zen. Ikuspegi horretatik aztertuta, diktadura II. Errepublikan lortutako eskubi-deentzako atzerapausoa izan zen.

Garrantzitsua da gogoratzea eta memoria historikoa egitea. Emakumeek frankismo garaian izan zuten egoera juridikoa honela laburbil daiteke:

**a)** Emakume adinez txikiko betierekoak: tutoreak izateko ezinduak –"eroen" edota kondenatutako pertsonen antzera–, beren ondasunekiko eskumenik ez zuten gero dohaintzak egiteko edo jasotzeko ezinduak... Adin-nagusitasuna 21 urtetan bazegoen ere, 25 urte bete arte emakumeek ezin zuten gurasoen etxetik alde egin lizentziarik edo baimenik gabe, ezkontzeko –baimenarekin– edo ordena erlijioso batean sartzeko ez bazen. Hezkuntza, lana eta beste esparru batzuetan sartzeko ere muga handiak zituzten.

**b)** Ez ziren beren gorputzaren jabeak: amatasunera derrigortuta zeuden, debekatuta baitzeuden antisorgailuen erabilera eta abortua, "honoris causa" izan ezik, hots, "emakumearen ohore galera" ezkutatzeko abortua edo haur-hilketa izan ezik. Senarrak bere emaztea hiltzea (uxorizidioa) baimenduta zegoen –oso gutxitan zigortzen zen– emakumeak adulterioa eginez gero. Era berean, ez zeuden zigortuta, justifikatuta baizik, senarrak "emaztea zuzentzeko" eskubidea erabiliz emakumeari indar fisikoaren bitartez eragiten zizkion lesioak, berau managaitza zenean edo diziplinarik ez zuenean

Era berean, emakumeen sexualitatea erabat kontrolatuta zegoen. Oso arau zorrotzak zeuden emakumeen jokabide zintzoari edota zintzoa ez zenari buruz, prostituzioari –"ispilu iluna", Dolores Julianoren hitzetan– egindako erreferentzia barne, izan ezin den irudiari buruz hitz egiteko. Izan ere, prostituten estigma bitarteko erabakiorrenetakoa zen "emakume zintzoak" kontrolatzeko. "Bide onetik" kanpora irtetzen zirenak emagalduen parekoak ziren eta horrek bazterketa sozial zorrotzena eragiten zuen.

Sexu askatasunaren erabateko gabezia "dontzeila bahitzea" bezalako bitartez islatzen zen. Azken horren zigorra baliogabetuta geratzen zen baldin eta bahitzailea emakumearekin ezkontzen bazen, azken honen nahiak kontuan hartu gabe. Ezkontzaren baitan gertatutako bortxaketak ez zeuden zigortuta eta jokabide jakin batzuk –adulterioa, esate baterako– emakumeak egiten bazituen soilik ziren delituak.



c) Hala eta guztiz ere, egoera juridikorik okerrena ezkonduko emakumeei zegokien, ez baitzuten inongo eskubiderik. "Familia buruaren" –hau da, lehenik eta behin aitaren eta gero senarraren– autoritatearen eta zaintzaren menpe, bere gaitasun juridikoa erabat mugatuta zegoen eta ez zuen inongo independentzia ekonomikorik. Emakumea senarrari men egitera, berau jarraitzera eta bere nazionalitatea hartzera ere behartuta zegoen. Senarrak administratzen zituen bikotearen ondasun guztiak eta emakumearen ordezkaria zen. Horrenbestez, azken hau ezin zen epaiketa batean bere kasa agertu, esate baterako. Guraso-ahala ere aitari zegokion.

Banaketa kasuetan egoera zailagoa zen oraindik ere, senar ohiak ondasun guztiak administratzen jarraitzen baitzuen eta hiru urtetik gorako seme-alaben guraso-ahala mantentzen baitzuen. Ezkonduko emakumearen depositu zeritzon figura bat existitzen zen, gizon baten zaintzatik kanpo egon ezin zuenez emakumea beste gizon baten ardurapean egotera igarotzen zelako. Halaber, emakumeak ezin zuen lizentziarik gabe lan egin, etabar luze bat.

Eta hau guztia duela 40 urte gertatzen zen; gure amei...

Aipagarriak diren aldaketa batzuk gertatu ziren. Esate baterako, 1958. urtean, erreforma batek ezkonduko emakumearen depositua bertan behera utzi zuen, eta baita guraso-ahalaren galera ere, emakumea bigarren aldiz ezkontzen zenean (bigarren senarrak bereganatzen zuen seme-alaben guraso-ahala). 1961ean lan-eskubideekin lotutako hobekuntza batzuk gertatu ziren (lan egin ahal izateko lizentziari zegokionez). 1970ean aitak seme-alabak amaren baimenik gabe adopzioan emateko zuen eskubidea baliogabetu zen. Aitzitik, 1975era arte ez zen legez zehaztu ezkontzak bikotearen gaitasuna mugatzen ez zuela.

Laburbilduz, trantsizio demokratikora arte boterearen aldetik bilatutako, nahi izandako eta sustatutako ezberdintasun hori mantendu zen: emakumearen papera emazte eta ama izatera mugatzen zen... eta hormonek eta instintuek zer esanik ez zuten gero, ordenamendu juridikoak ezberdintasuna bultzatzen zuen eta diskriminazio bihurtzen.

Demokraziak bere lehen urratsak emateaz batera bigarren aldi batean bil ditzakegun legezko aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren:

## 2. BERDINTASUN FORMALA

Dagoeneko esan dudan moduan, poliki-poliki legeekin lotutako aldaketak gertatu ziren. Aitzitik, azpimarratu beharra dago konkistak izan zirela eta ez "garai berrietarako egokitzapenak", edo modernizazioaren ondorioak. Emakume askoren borroka antolatuari eta klandestinoari esker soilik lortu ziren.

"Paperaren gaineko berdintasunaren" bigarren fase honetan, gertakari nagusia 1978ko Konstituzioa izan zen: 14. artikulua dugu, sexu arrazoiengatiko tratu diskriminatzailea debekatzen duena. 9.2. artikulua ere funtsezkoa da, botere publiko guztiak pertsona guztien arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzera eta berau eragozten duten oztopoak gainditzera derrigortzen dituena. Bi arauok dira gerora gertatuko diren aldaketa guztien funtsa.

Funtsezko legeko aldaketa –familia egiturari eragin ziolako– 1981ean onartutako Dibortzioaren Legea izan zen, familia eta filiazio harremanen erregulazioa aldatu zuena. Izan ere, harrez geroztik seme-alaba guztiak berdinak dira ezkontzaren baitan edo ezkontzatik at jaio diren arren. Nolanahi ere, lege hura ez zen feministok nahi genuena (banaketak eta dibortzioak arrazoi bat zuten: erruduna nor zen zehaztu beharra zegoen) eta urte asko itxaron behar izan dugu hura aldatzeko.

Sexu askatasunarekin lotutako aldaketak gertatu ziren. 1976tik aurrera antisorgailuen erabilerari zegokion zigorra ezabatu zen, baina 1985era arte borrokatu behar izan genuen haurdunaldiaren etete boluntarioa, hots, abortua zigortuko ez zuen legea onar zedin, hiru kasu zehatzetarako besterik ez eta mugimendu feministak aldarrikatzen zuen moduan izan ez bazen ere. Beste hitz batzuetan, haurdunaldiaren lehendabiziko asteetan emakumeari bere kasa erabakitzen utzi beharrean, emakumeen borondatea adituen (medikuak, psikologoak, etab.) autorizaziora mugatuta geratu zen, aditu horiek erabakiko baitzuten haurdunaldia eten zitekeen edo ez. Dibortzioaren kasuan bezala, eztabaida hau bere horretan geratu zen eta azken aldiaren berau konpontzeko beharra antzeman dugu. Izan ere, abortuak egiten dituzten kliniken aurkako erabaki judizialak hartzen ari dira eta horrek, azken finean, artatutako emakumeei eragiten die, onartezina dena.

Ilido beretik, 1989an zigor kodean lehendabiziko aldiz “askatasun sexualen aurkako delituei” buruz hitz egiten hasi ziren. Ordura arte “zintzotasunaren aurkako delitu” deitzen zitzairen. Horrela, prostituta bat bortxatzea ez zen delitua, “zintzoa ez zen emakume” bat zelako. Senar batek bere emaztea bortxatzea ere ez zen “zintzoa ez zen ekintzat” jotzen. Beraz, izen aldaketa bat baino zerbait gehiago izan zen. Urte berean familiaren baitan hain ohikoa zen indarkeria delituzat jo zen, etxeko indarkeria deituko zena.

Lan-munduarekin lotuta beste erreforma interesgarri batzuk gertatu ziren. Langileen Estatutuak (1980) emakume eta gizonen arteko eskubide berdintasuna ezarri zuen eta laneko diskriminazioa gaitzetsi zuen.

- Lege aldaketa horiek garrantzitsuak izan baziren ere, artean ez geunden pozik:
- Horrela, lan esparruan aldaketa gehiago beharrezkoak zirela (eta gaur egun ere beharrezkoak direla) pentsatzen genuen. Emakumeentzat zailagoa da lana lortzea eta langabezia-tasa zein lan-prekarietatea handiagoak dira euren artean, lan-baldintza okerragoak dituzte, gizarte segurantzak eskasagoa dute... Zeharkako diskriminazioak agerian utzi ditugu (oso antzekoak diren lanak baina kategoria profesional ezberdinekin eta, beraz, soldata ezberdinekin...); etxeko zerbitzuaren diskriminazioa; emakumeak baloratuta ez dauden laneko sektoreetara mugatzea...
  - Segregazio bertikala existitzen da, karrera profesionala egitea galarazten diguna: gizonen gaitasun profesional berarekin edota handiagoarekin ez ditugu erakundeetako postu gorenak (kristalezko sabaia) lortzen. Bestalde, lanaldi bikoitzaren dinamikan sartuta jarraitzen dugu, diru-sarrerak ditugun arren, etxeko zainketek eta lanek emakumeon eskuetan jarraitzen dutelako.
  - Sexu askatasunaren arloan egindako hobekuntzek anibalentzia jakin bat dute, marxismoaren ikuspegitik “edozein gizonentzako erabilgarri” gisa identifikatu dutelako. Bestalde, arau heterosexistaren baitan, natalitatearen kontrola (hobekuntza bat, emakumeen ardura bada ere) estetika diktadurari lotuta dago; emakume askea-

- ren ereduarekin gertatzen den moduan, ideal erromantikoari dagokionez. Emakume asebetearen eta bere amatasunaren arteko loturaren ikuspegia ere ez da aldatu...
- Emakumeen aurkako indarkeriak bere horretan dirau –edo hazi egin da?–, diskriminazio sexistaren manifestaziorik larrienaren eta onartezinenaren adierazgarri.
  - Gainera, emakumeen arteko ezberdintasunak agertu dira (diskriminazio bikoitza: bulnerabilitate egoera berezian dauden emakumeak...). Eskubideetan sakontzeak autonomia ekonomiko, sexual, sozial... ezberdina duten emakumeen errealitate konplexua eragiten duela uste dut eta horrek diskurtso feminista oso generikoa bihurtzen du. Emakume ugari ez dira azken horrekin identifikatzen. Era, testuinguru horretan, etxeko lana, gizon eta emakumeen artean banatu beharrean, eskubiderik gabeko beste emakume batzuren eskuetara igarotzen da. Horrek kontraesan nabarmenak eragiten ditu, lan horren balorazio eza eta azken horrekin lotutako lan baldintza injustuak mantentzen direlako...

### 3. BERDINTASUN ERREALAREN BILA

Ez da nahikoa legeak aldatzea, gure lorpenak ikusgarriak izatea lortu behar dugu. Boterea eta erabakiak hartzeko aukera eskuratu behar ditugu: legeak idazten direnean, beharrekin edo zerbitzuekin lotutako lehentasunak ezartzen direnean, emakumeen interesak kontuan hartzen direla bermatu behar dugu.

- Argi geratu da kuota sistema botere politikoa eskuratzeko bitarteko egokia dela; enpresa edo ekonomia esparruan, aldiz, zailagoa da. Ezinbestekoa da esparru guztietan emakumeen presentzia arrunta izatea, eta ez salbuespenezkoa, eta oraindik lan handia dugu egiteko (alderdi politikoetan, sindikatuetan, etab.).  
Oso garrantzitsua izan da emakumeon eskubideak defendatzen dituzten instituzioak martxan jartzea (esate baterako Emakunde eta Defentsoria, gure Autonomia Erkidegoan), mugimendu feministarekin sinergiak sortzeko beharra dutenak, berau inolaz ere ordezkatu gabe...
- Ekintza positiboko politika eta neurriak ere hasierako ezberdintasunak gainditzen ahalegintzeko garrantzitsuak izan dira. Zoritxarrez, ez dira nahikoak (isolatuak, aurrekontu sinbolikoekin...), genero ikuspegiaren zeharkakotasuna (mainstreaming) beharrezkoa baita, politika guztietan, arau eta erabaki guztietan, esparru guztietan (lanean, fiskalean, osasunean, hirigintzan...) egon beharko lukeena: ezberdintasuna ukatzeak berau indartzea eragiten du. Zentzu honetan, aurrerapausoak eman dira, lege guztietako "genero eraginaren" balorazioa bezalakoak...
- Argi dago aurrerakuntzak gertatu direla, baina oraindik ez dira nahikoak. Emaitzetan edo ondorioetan oinarrituta jokatzeko jarraitzen dugu, eta ez arrazoietatik abiatuta, hots, emakume eta gizonen arteko sozializazio ezberdindutik abiatuta. Gure gizarteak generoaren arabera rol banaketari eusten dio eta dagozkigunetan "espeziali-

zaten" gaituzte, antzematea eta beraz, aldatzea, zailena den eremuetan (psikologikoa, afektiboa...) balio ezberdinak, jokabideak, batik bat, txertatuz.

Gaur egun, egon badaude ezberdintasunaren egitura hori kontuan hartzen duten eta rolen banaketa ezberdinean eragina izaten ahalegintzen diren legeak. Horren adibide ditugu Berdintasunerako Euskadiko Legea, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko Legea (biak sozializazioa, mentalitate aldaketa, sentsibilizazioa, etab. lortzen ahalegintzen dira), autonomia pertsonaleko eta mendekotasunaren arretarako Legea, Berdintasunerako Legea... Oso arau garrantzitsuak dira, baina oraindik ere salbuespena izaten jarraitzen dute. Eta teoriarik neutroak diren legeek ezberdintasunak eragiten jarraitzen dituzte.

Nolanahi ere, balorazio positiboa egin behar dugu, aipatutako legeak aurrerapauso eztabaidaekin izan direlako. Zailtasun handiagoak existitzen dira idatzita ez dauden arauak aldatzeko: gure sinesmenak eta pentsamolde sakonak erregulatzen dituztenak, sentimenduekin zerikusia dutenak... Zentzu honetan, Irungo eta Hondarribiko Alardeekin lotutako gatazka –aipatutako horietan emakumeen parte hartzea debekatzen da tradizioaren izenean– argia eta oso gertukoa zaigun adibidea da.

Aipagarria da ezberdintasunean oinarritutako legeekin zerikusia duen arriskua: kasu batzuetan generoen arteko estereotipoak eta desoreka indar ditzakete. Adibide batzuk aipatutako ditut: genero indarkeriaren aurkako lege integralaren zigor neurrietan, hura diskriminatzailea zela zioten kritika batzuk ekiditeko, emakumeen eta "persona bulnerableen" arteko identifikazioa egin zen, emakumeei inongo mesederik egiten ez diona. Are gehiago, urrutze agindua bezalako neurriak, derrigorrezkoa genero indarkeriaren kasu guztietan, egoerak edota –larriagoa dena– afektaturiko emakumeen borondatea kontuan hartu gabe, emakumeekin adinez txikikoak balira bezala edota komeni zaiena jakingo ez balute bezala jokatzearen parekoa da nire aburuz.

Era berean, mendekotasun legearekin lotuta, "familiako zaintzailearen" figurak –oso ezohikoa dirudiena baina azken finean orokortuena dena– emakumeek zaintzaile gisa duten papera betikotzea eragin dezake, aurreko "kontziliazio" legeekin –gogoratu beharra dago– gertatu den bezala.

Estereotipoak indartzeko arriskua dugun honetan, Estatuko Berdintasunerako Legea eredu positiboa dela aipatu beharra dago, aipatutako horrek "besterendu ezineko aitatasun-baimena" zehazten duelako. Egia da oraindik ere amaren parekoa ez dela, baina ezberdintasunen arteko negoziazioarekin lotuta funtzioen banaketaren bidean aurrerapausoak eman ditu (hau da, laneko legeek egiten duten gauza bera egiten dute, lan baldintzen negoziazioa enpresariaren eta lan indibidualaren eskuetan uzten ez baitute. Aitzitik, gutxieneko batzuk ezartzen ditu).

#### 4. ETORKIZUNARI BEGIRA

- Nire iritziz, berdintasun erreala lortzeko bideak berdintasunezko sozializazioa uztartu behar du: euren sexu biologikoa kontuan hartu gabe, pertsona guztiak beren osotasunean gara daitezen hezitzea. Gizaki oro bere potentzialitateak garatzeko gai izan dadila eta emakume hedonistak edota "arazo publiko handiengatik" eskusiboki arduratzen direnak egon daitezela, gainontzekoen beharreatatik kezkatzen diren gizonekin batera, beren afektibitatearen arduradunak izango direnekin eta samurtasuna garatuko duten berberekin... Laburbilduz, lan mota guztiak banatzeko prest egongo diren pertsona autonomoak egon daitezela.
- Zentzu berean, begien bistakoa da pertsonak zaintzea lan sozial bat izan behar duela, eta ez soilik familiari atxikitakoa. Horretarako, beharrezkoa izango da nahikoa baliabide eta zerbitzu artikulatzea.
- Lan esparruan oraindik ere existitzen den diskriminazioari aurre egin behar diogu, merkatu horretako ginofobiari, Amelia Valcarcelen hitzetan, eta segregazio horizontalarekin (lan jakin batzuen feminizazioa) eta bertikalarekin (eliteen bazterketa) amaitu behar dugu.
- Eta, egile berak dioen bezala, feminismoan unibertsalismo gisa sakontzen jarraitu behar dugu; giza eskubide unibertsalen eskakizun gisa, pertsona guztientzako, baldintza okerrenetan daudenei arreta berezia eskainiz (zaharrak, etorkinak, ezinduak, etab.). Zalantzarik gabe, irteera bakarra emakumeen arteko elkartasuna da; gure artean itunak egitea lortu duguna kontserbatzeko eta askatasunen esparruan aurrera egiten jarraitzeko.
- Feminismoaren nazioarteko hedapena azpimarratzea ere garrantzitsua da, globalizazioaren aldi honetan batik bat: munduko emakume guztiak barku berean goaz eta, beraz, batzuen askatasun galerek eta atzerapausoek guztioi eragiten digute... Eta globalizazioa aipatu dudanez gero, ezin dugu kultura aniztasunari buruzko eztabaida ahaztu, bete-betean eragiten diguna... Baina hori beste egun baterako utziko dut.

Eskerrik asko.



# EGUN DUGUN ERREALITATEA GIZA ESKUBIDEAK LORTZEKO BIDEAN AL DA?

**Begoña San José Serrán andrea**

*Politika Feministako Forumaren lehendakariordea*

---

Uste dut oso egokia dela Galdakaoko Berdintasunari buruzko IV Udal Jardunaldiei "Generoa eta Giza Eskubideak" izenburua jarri izana. Asunción Olivak<sup>1</sup> dioen moduan, "genero" hitza, teoria feministak egun erabili ohi duen bezala, ez dago Espainiar Hizkuntzaren Errege Akademiaren hiztegian jasota. Simone de Beauvoir-ek 1949an jada "emakumea ez da jaiotzen, izatera iristen da" esan bazuen ere, Gayle Rubin izan zen 1975ean genero kontzeptua edo sexu-genero sistema garatu zuena, ezberdintasun biologikoaren erabilera gisa –gizon eta emakumeak ezberdinak baitira, baina elkarren antz handiagoa dute mendiekiko, kanguruekiko edo koko arbolekiko dutena baino–, emakumeen segregazio eta subordinazio sistema bat eraikitzeko. Gaur egun, banaketa eta hierarkia bere bi kontzeptuen artean banaketa soilik nabarmendu ohi bada ere, "genero" ez da "patriarkatuaren", emakumeen zapalkuntza sistemaren, eufemismoa. Horrenbestez, generoaz hitz egiten dugu ez horrekin lotutako segregazioari eta subordinazioari eusteko, baizik eta azken horiek behin betiko suntsitzeko.

Simone de Beauvoir-en hitzetan, "munduan bi pertsona mota daude: gizakiak eta emakumeak. Eta emakumeak gizaki gisa jokatzen ahalegintzen direnean, gizonak izaten

---

<sup>1</sup> *Teoría feminista: de la Ilustración a la globalización*, Celia Amorós eta Ana de Miguel, Minerva Ediciones ediz., 2005. 3. liburukia, 15. orr. eta hurrengoak.

saiatzea leporatzen zaie". Horregatik, feminismoak gizadiaren bigarren sexua ematen du aditzera, baina ez banaketa mantentzeko, eskubide eta aukeren **unibertsalizazioa** baizik. Izan ere, esparru horretan soilik gara dezake pertsona orok, gizon zein emakume, bere nortasuna, estereotipatua edo aurrez prestatutakoa ez dena, norberarena baizik. Beraz, giza eskubideen izaera unibertsala eta globala, 1948ko Deklaraziotik hona eztabaida ezina, emakumeek duela hiru mendetatik gaur egunera arte aldarrikatu duten berdintasun eskaritik oso gertu dago.

Lehenago Arartekoak esan bezala, Ilustrazioak eta azken horrek 1789ko Frantziako Iraultzan izan zuen instituzionalizazio politikoak, askatasun, berdintasun eta senidetasun printzipioak eta Gizakien eta Herritarren Eskubideen Deklarazioa onartzeaz batera, emakumeentzako espektatiba handiak eragin zituzten. Aristokrazia ilustratuko zein herri xeheko emakumeek berek aktiboki parte hartu zuten iraultzan. Prezioen gorakadaren aurkako emakumeen manifestazioak Normandian eta Versallesen, beren esku hartzea Hirugarren Estatu gisa Grenobleko Estatueta, Batzarrari gremioak, hezkuntza, osasun zerbitzuak, dibortzioa edo prostituzioa bezalako esparruetan gizonak zuten konpententziari buruzko kexa koadernoak aurkeztea... 1791ko Konstituzioak hori guztia bertan behera utzi zuen. Montesquieuk *Legeen izpirituaz*-en esan zuen bezala "giza espezieko norbanakoen eskubide komunak idaztean eta azken horiek instituzio politikoekin oinarri bakar bihurtzean, eskubide berdintasunaren printzipioa baliogabetzen dute eta giza generoaren erdiari legeak sortzeko aukera ukatzen diote, hau da, emakumeei herritarren eskubideak ukatzen dizkiete". Eskubide "unibertsal" berrien bazterketa horren aurka altxatu ziren emakume klubak, Olimpia Gournes buru zela. Gournesek "emakumea urkamendira igo daiteke, baina ez tribunara" esan zuen, 1793an exekutatua izan aurretik. 1794an emakumeak dohaineko hezkuntza publikotik kanporatuak izan ziren; 1799an bigarren hezkuntza eta goi hezkuntza debekatu zitzairen eta apur bat beranduago baita lanbide-prestakuntza eta gremioak ere. 1804an Napoleonek bere Kode Zibilarekin egoerari azken ikutua eman zion eta Mendebaldeko herrialde guztiak aipatutako Kodea kopia zuten. Azken horrek emakumeek beren kasa inongo eskubiderik izateko gaitasunik ez zutela zehazten zuen.

1790ean Mary Wollstonecraft emakume ingelesak *Emakumeen eskubideen errebindikazioa* idatzi zuen, Mary Shelley, Frankensteinen egilea, bere bigarren alaba erditzeaz batera hil aurretik. Horrela, "arrazoizko" gizonak emakumeenganako berdintasuna eta konpromisoa eskatzen hasi ziren, Harriet Millek eta John Stuart Millek egingo zuten bezala. Azken horrek 1869an *Emakumeen lotura* idatzi zuen. 1848an Seneca Fallseko Konbentzioa eta Deklarazioa gertatu ziren, Estatu Batuetako Independentzia Deklarazioan oinarrituta. Azken horrek emakumeek bozkatzeko, bozkatuak izateko, kargu publikoak betetzeko, erakunde politikoetara afiliatzeko edota bilkura politikoetan parte hartzeko eskubiderik ez izatea salatzen zuen. Bertan jarri zen martxan emakumeen erakunde banatua, gure aliatu aurrerakoiek gure aldarrikapenak sistematikoki atzeratu ez zitzaizten. Eskubideen unibertsalizazioaren eskaria, beraz, mugimendu feministaren helburua izan da berau duela hiru mende sortu zenetik.

Aliatu aurrerakoi horien artean egon da langile mugimendua, XIX. mende erdialdean garrantzi handia irabazi zuena eta bigarren belaunaldiko giza eskubideen edo eskubide ekonomiko eta sozialen onarpena (lanerako, osasunerako eta gizarte babeserako eskubi-



deak, esate baterako) hegemonizatu duena eta berdintasun printzipioa berriro sustatu duena. Horrek itxaropenak eman zizkien emakumeei eta feminismoarekin lotutako bigarren bolada eragin zuen, XIX. mende amaieran eta XX. hasieran bozkatzeko eta hezkuntza jaso ahal izateko eskubideak bereziki aldarrikatzen zituena. Poliki-poliki munduko herrialdeek emakumeen botoa onartu dute, 1893an Zeelanda Berritik 2005ean Kuwaiteraino, baina salbuespen eta mugekin. Bestalde, hezkuntza arloan oraindik ez dugu berdintasunik lortu, 1995ean Beijing-en antolatu zen Emakumeari buruzko Munduko IV Konferentzian azpimarratu zen bezala "100 milioi ume inguruk, horietatik 60 milioi gutxienez neskak direla, ez dute lehen hezkuntzarik eta munduko 960 milioi alfabetatugabe helduen bi heren baino gehiago emakumeak dira".

## **EMAKUMEAK ETA 1948KO GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA**

1948ko deklarazioa Bigarren Mundu Gerran erdietsitako desumanizazio mailak –sarraskitze esparruak eta bonba atomikoa, besteak beste– ekiditeko neurriak hartu behar direlako kontzientziaren ondorioz sortu zen. Kultura eta ideologia politiko ezberdinetan, gerrako irabazleen eta menderatuen artean eta baita borrokatu ez zirenen artean ere, mugimendu bat jaio zen, indar moral bat.

Nazioaz gaindiko eskubide indibidual jakin batzuk ezartzea ez zen kontu berria, Eskubide Erromatarreko jendearen eskubideen artean zegoen eta Ameriketako Konkistaren ondoren indar handia bereganatu zuen, Francisco de Vitoriak eta beste jurista batzuek menderatutako indioek ere eskubide jakin batzuk zituztela defendatu zutenean. Baina, nire iritziz, barneratutako eskubideen bildumari, izenburuak berak aldarrikatzen duen unibertsalitate kontzeptuari –Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, ez "Gizonarena"– eta botere gisa sortutako Nazio Batuen Erakundeari esker (subiranotasun nazionalak mugatuta baina pertsonen eskubideak defendatzeko azken horietan txertatzeko gai dena), 1948ko Deklarazioa gertakari historiko garrantzitsua izan zela esan dezakegu.

Deklarazioaren 50. urteurrenak bere etnozentrismoari buruzko kritikak piztu ditu, Mendebaldean sortua, beste tradizio kultural batzuetatik urrunekoa, hirugarren eta lauugarren belaunaldietarako eskubiderik gabekoa eta bere bermearen eraginkortasunik gabekoa bezalakoa. Kritika horietako batzuk CLADEM, Emakumeen Eskubideetarako Latinoamerikako eta Karibeko Batzordea bezalako erakundeek egin dituzte. Azken horrek, ikuspegi etniko-razial batean oinarrituta, garrantzi berezia ematen die eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei, globalizazioarekin, herritarren guztizko parte hartzearekin, sexu eta ugaltze eskubideekin eta indarkeriarik gabeko bizitzarekin lotuta.

1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak Hitzaurrean gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna azpimarratzen du, bere artikuluek tortura, morrontza eta esklabutza debekatzen dituzte, eta honakoa diote: pertsona orok Deklarazio honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztiak ditu, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edota bestelako bereizketarik gabe, jatorri nazionala edo soziala,

botere ekonomikoa, jaiotza edo bestelako baldintzak edozein direla ere (2. art.), legearen aurrean pertsona guztiak berdinak dira eta edozein diskriminazio motaren aurka babestu beharrekoak dira (7. art.), ezkontzari, biek nahi badute soilik zilegi izango denari, zein dibortzioari dagokionez bikoteak eskubide berak izango ditu (16. art.), funtzio publikoak lortzeko aukera berdintasuna eta sufragio unibertsala eta berdina (21. art.), gizarte segurantzaz izateko eskubidea (22. art.), diskriminaziorik gabeko lana eta sindikazioa izatekoa (23. art.), atsedena, denbora libre eta oporrak izatekoa (24. art.), umeek, ezkontzaren baitan eta ezkontzatik kanpo jaiok direnean ere, amatasunerako eta haurtzarorako laguntza bera izatekoa (25. art.).

**1946an**, NBEaren **Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak, Nazio Batuen Eskutitzaren** 68. artikularekin lotuta, **Giza Eskubideen Batzordea** sortu zuen, Estatu kideetako 18 ordezkari osatutakoa, giza eskubideak defendatzeko bitartekoak prestatzeko. Horren baitan AEB, Frantzia, Libano, Txina, Txile, SESB, Erresuma Batua, Australia eta Kanadako 8 kidek osatutako Komitea sortu zen. Azken horiek zazpi gizon eta emakume bat ziren: Eleanor Roosevelt.

Eleanor Roosevelt-ek (1884-1962) 62 urte inguru zituen eta Franklin D. Roosevelten, 1933 eta 1945 bitartean AEBetako presidentea izandakoaren, alarguna zen. Theodor Roosevelt presidente ohiaren iloba zen, aita eta amarik gabeko umezurtza, 19 urte zituela ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituen. 34 urterekin bere senarra fidela ez zitzaiola ohartu zen eta bere karrera politikoa ez kaltetzeko ezkontza itxurak egin bazituen ere, bere independentzia pertsonal eta politikoa aldarrikatu zuen. Hiru urte beranduago senarra polimelitisarekin kutsatu zen, presidente izango zen zortzi urteetan zehar izango zuen gaixotasuna. Eleonorrek, Eskubide Zibilean aktibistak, 1939an Marian Anderson abeslari beltzaren errezitaldi bat antolatu zuen Lincoln Memorial-ean. Constitution Hall-ak Marian Anderson gaitzetsia zuen eta bere errezitaldiak 70.000 ikusleko audientzia izan zuen eta irrati bidezko transmisioa herrialde guztian. Eleonorrek aktiboki parte hartu zuen Emakume Bozkatzaileen Ligan, Merkataritza Batasunaren Emakumeen Ligan eta Alderdi Demokrataren Emakumeen Aldean. Eskema guztiak hautsiz, adiskidetasun irekia izan zuen lesbianekin, 350 prentsaurreko eman zituen emakumezko kazetarien aurrean, herrialde guztian zehar bidaiatu zuen, konferentziak eskaini zituen, irratan hitz egin zuen eta bere iritzia eman zuen My Day (Nire Eguna) zeritzon egunkariko zutabe batean. Espainiako Gerra Zibilean, Roosevelt familiak 14 urteko umezurtz bat adoptatu zuen. Bigarren Mundu Gerran, Eleonorrek tropak bisitatu zituen bere herrialdearen base militarretan, Karibeetan, Europan eta Ozeano Barean eta senarrak 110.000 japoniar eta japoniarren ondorengo Mendebaldeko Kostako kontzentrazio-esparruetara eramateko eman zuen aginduaren aurka egon zen.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeko emakume bakarra zela, eta zuzenbidean eta nazioarteko politikan prestakuntza akademikorik ez zuen bakarra, bere adiskideen errespetua irabazi zuen eta 1946an Presidente hautatu zuten. Bi urte behar izan zituen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala prestatzeko eta proiektu horretan elite politikoa eta intelektuala zein gizarte kolektibo handiak inplikatu zituen. Azkenik, Batzar Orokorrean aurkeztu zuen 1948ko abenduaren 10ean. 1951ean Nazio Batuak utzi zituen eta lau liburu autobiografiko idatzi zituen; bertan, besteak beste, Giza Eskubide izenburua

nola defendatu zuen kontatzen du, Gizonaren Eskubide beharrea, beste batzuek proposatzen zuten bezala. Bestalde, 2. artikuluan dagoen moduan, giza eskubideen artean sexuaren arabeko diskriminazioa debekatzeko hiru hilabeteko eztabaidak beharrezkoak izan zirela dio. Bere gizonetzko adiskideek aipaturikoa Deklarazioan agertzea beharrezkoa ez zela uste zuten, beren aburuz testuan inplizituta zegoelako. Eleanorrek aipaturikoa zehaztea lortu zuen, tortura existitzen delako debekatzen denez gero, sexuaren arabera diskriminazioa existitzen delako ere debekatu beharra dagoela argudiatuz. Jakin bazekien aipatzen ez dena onartzen ez dela eta ezta aldatzen ere.

Eskutitza sinatu zuten lehendabiziko pertsonen artean lau emakume zeuden: Minerva Bernardino dominikarra, 1953 eta 1955 bitartean Emakumeen Egoerari buruzko Batzordeko presidentea izango zena, Brasileko Bertha Lutz, Estatu Batuetako Virginia Gildersleeves eta Txinako Wu Yi-Tang.

la hogeita hamar urte beranduago, mugimendu feministaren hirugarren boladak, "pertsonala dena politikoa da" lemapean, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu zapalkuntza gaitzetsi zituen eta sexualitaterako eta natalitatearen eta abortuaren kontrolerako eskubideak, bortxaketaren eta genero indarkeriaren aurkako babesak eta bikoaren berdintasuna aldarrikatu zituen. Era berean, 1979an Nazio Batuak Emakumeen Aurkako Diskriminazio Mota Oro Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (**CEDAW**) onetsi zuen, 163 estatuk berretsitakoa. Lau urtez behin estatu horiek txosten bat aurkeztu behar diote Komiteari, aipatutako Konbentzioa nola aplikatzen ari diren jakinarazteko. CEDAWk sexuaren arabeko diskriminazioa debekatu du eta, gainera, *emakume eta gizonen berdintasun erreala lortze aldera ekintza positiboa mekanismo gisa erregulatzen du*. Hala eta guztiz ere, berau "erreserbekin" berresteko aukerak –zoritarrez gure herrialdean gertatzen den bezala, gure Konstituzioko 57. artikulua Koroaren oinordekotzan gizonen ematen baitie lehentasuna– bere eraginkortasuna murrizten du. Hura indartzeko 1999an **Aukerazko Protokoloa** onartu zen, diskriminazioa jasaten duen edozein biktimari edota GKEi CEDAWko Komiteari jotzea ahalbidetzen diena, beren herrialdeko errekurtso judizialak agortu dituztenean. Bestalde, emakumeen eskubideak urratu direla ziurtatzen duen informazio fidagarria existitzen den kasuetan ofiziotzko ikerketa ahalbidetzen du.

1993an Vienako Giza Eskubideen Nazioarteko Konferentziak Deklarazioa eta Ekintza Programa onetsi zituen, "Emakumeen eskubideak, giza eskubideak" lemapean, honakoa zehazten duena: "emakumeen eta nesken giza eskubideak giza eskubide unibertsaleetatik ezin besterenduzko atal integrantea eta banaezina dira" eta "indarkeria eta sexu jazarpen eta esplotazio modu guztiak, aurreiritzi kulturaletatik eta nazioarteko merkataritzatik eratorritakoak barne, ez dira gizaki ororen duintasun eta balioarekiko bateragarriak eta beharrezkoak da aipatutako horiek ezabatzea". Hori dela eta, 1993ko Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Deklarazioa onetsi zen eta 1994an Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordean Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Kontatzaile Berezi bat izendatu zuten.

Emakumei buruzko lau Munduko Konferentziak eta bereziki laugarrenak, 1995eko Beijing-go Ekintza Plataformarekin, berau berretsi duten estatuak jarraitu beharreko helburuak eta neurriak zehaztu dituzte. Bestalde, estatu horiek bost urtean behingo beteazpenaren ebaluazio sistema bat ezarri dute, Beijing+5 eta Beijing+10. Hala ere, ema-

kumezko GKEak ez gaude konforme, betearazpena oso eskasa izateaz gain berau sustatzeko parte hartzea geroz eta zailagoa zaigulako.

## **BERDINTASUNERAKO ESKUBIDEA, DEKLARATZETIK NEURTZERA: CEDAW TXOSTENAK, EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO BESTE TXOSTEN ETA ADIERAZLE BATZUK**

CEDAWrako lau urtez behin egiten diren txostenez gain, luzeagoak direnak eta CEDAWko Komiteak urte bakoitzeko hamabost eguneko bilera batean (nahikoa ez den denbora) ebaluatzen dituenak, 1990etik Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD), Amartya Sen eta Mahub ul Haq ekonomialari pakistaniarraren ideietan oinarrituta, Giza Garapen Indizea (GGI) prestatzen eta argitaratzen du, herrialde bakoitzeko neurketa estatistikoa dena eta honako hiru parametroak uztartzen dituena:

- Jaiotzaren momentuko bizi-itxaropena
- Helduen alfabetatze tasa eta lehen eta bigarren hezkuntzan zein goi hezkuntzan dauden matrikulazio tasa.
- Biztanle bakoitzeko BPG

2007an, 177 herrialderen artean, Giza Garapen indizek onena Islandiari dagokio eta okerrena, berriz, Sierra Leonari. 17 herrialde zerrendatik kanpo daude, Irak eta Afganistan esate baterako, nahikoa daturik eskaintzen ez dutelako. Espainia 13. postuan dago.

1995eko Giza Garapeneko Munduko Txostenaren arabera –bereziki genero berdintasunera zuzendutakoa–, gizonen lanaren hiru laurden ordaindutako jardueri dagozkie eta emakumeen kasuan, ostera, lanean igarotzen duten denboraren heren batengatik soilik jasotzen dute ordainsaria. Horregatik esan ohi da “emakumeak kontuan hartzen direla, baina ez direla kontabilizatzen” eta berdintasuna sustatze aldera **Generoari dagokion Garapen Indizea** (GGI) ezartzea erabaki zuten. Azken horrek gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak bilatzen eta “zigortzen” ditu GGIaren aldagai eta dimentsio guztietan: osasuna, hezkuntza eta diru-sarrerak. Berdintasunari dagokionez 10eko nota eskuratzeko duen herrialderik ez badago ere, Norvegia, Australia eta Kanadak 9,5ekoa gainditzen dute. Espainia 12. postuan dago eta datuak eskaintzen dituzten 157 herrialdeetatik notarik okerrenak Sierra Leona, Guinea Bisau eta Nigerrri dagozkie.

**Generoaren Potentzia Indizeak** (GPI) emakumeek erabaki ekonomiko eta politikoetan duten parte hartzea eta jasotako diru-sarrerak erakusten ditu:

- Parlamentuan aulkia duten emakume eta gizonen proportzioa.
- Legegileen postuetan, funtzionario altuen lekuan, zuzendaritzakoetan, profesionalen eta teknikoetan dauden emakume eta gizonen proportzioa.
- Baliabide ekonomikoen kontrola: emakume eta gizonen diru-sarrerak.

Norvegia, Suedia, Finlandia eta Danimarka lehenengo postuetan daude. Espainia 12. postuan dago eta neurtutako 93ren arteko okerrenak Yemen, Arabia Saudi, Egipto eta Turkia dira.

Europar Batasunean hamarnaka adierazle daude emakumeek lanari, genero indarkeriari, kontziliazioari etabarri dagokienez bizi duten egoerari buruz. Haien aplikazioa eta hedapena Adierazle integratu baten bitartez aditzera eman nahi da eta aipatutako adierazlea 2006an onetsitako Generoaren Europako Institutuak ahalbidetu beharko luke eta 2007an martxan hastekoa zen. Adierazle eta estatistikek geroz eta paper garrantzitsua goa dute ez soilik ezarritako eskubideekin edota helburu politikoekin lotutako errealitate sozialaren irudi zintzo gisa, baizik eta baita berau hobetzeko bitarteko gisa ere: Berdintasunerako Euskadiko eta Estatuko Legeetan zehaztutako Genero Eraginari buruzko Txostenetan, aztertze proba gisa, enpresetako Berdintasunerako Planen negoziatze-rako argudio gisa.

## **GIZA ESKUBIDE UNIBERTSALAK: ESKUBIDE BIGUNA?**

Eskubide biguna deritze oso inperatiboak ez diren arauak, azken horiek idazteko "-tze joera" edo "ahaleginak egin beharko dira" bezalako hitzak erabili zirelako, bere artikuluetariko batzuk erreparoeekin aplikatzen direlako, CEDAWk egiten duen bezala, edota arauak betetzen ez dituztenak jarraitzeko eta zigortzeko botere hertsatzaileak ez dutelako. Eskubide biguna ohikoa da emakume eta gizonen berdintasunaren esparruan, ez soilik nazioarteko eskubidea. Horrela, emakumeek berdintasunerako duten eskubideak, giza eskubide unibertsala denak eta 1993ko Vienako Konferentzian espezifikoki onartutakoak, ez du bere aplikaziorako bitarteko eraginkorrik.

Hala eta guztiz ere, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala banaezina da, ezin da erreparoeekin berretsi, gizaki oro da giza eskubide guztien jabe. Europar **Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmenaren** alde egiten dute. Berau Europako Kontseiluak onartu zuen 1950ean eta gaur egun 44 estatuk berretsi dute (Espainiak 1979an berretsi zuen). Aipatutako Hitzarmenak eskubide berri batzuk barne hartzen ditu, heriotza-zigorra debekatzea, esate baterako, eta estatuko justizia agortu ostean Giza Eskubideen Europako Auzitegira jo daitekeela. Azken horri Estrasburgoko Auzitegia eta Giza Eskubideen Europako Korteak ere deritza.

## **EGUN DUGUN ERREALITATEA: BERDINTASUNERAKO GIZA ESKUBIDEEN BIDEAN AL DAGO?**

Nire iritziz, 1995eko Beijing-go Konferentziako berdintasunerako politikez geroztik ahalegin horrek behera egin du. Lan merkatuaren erregulazio eza eta hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzu publikoen pribatizazioa eta ezabatzea berdintasunarekin lotutako neurri espezifikoak neutralizatzen dituzten politika orokorrak dira. Ez da soilik Txinaren arazoa. Emakumeen Europako Loobyak Beijing+10 bere Txostenari buruz zehazten zuen bezala, esparru horrek emakumei eragiten die Europar Batasunean, zabalkundeko herrialdeetako bat bat. Espainian, legediak 2004ko Genero Indarkeriaren aurkako Legeari, 2006ko Mendekotasun Legeari eta 2007ko Berdintasunerako Legeari esker hobe-

ra egin duen arren, Berdintasun Politiken Idazkaritza Nagusiak eta Emakumearen Institutuak Estatuaren aurrekontuaren %0,01 besterik ez dute bideratzen neurri espezifikoak aplikatzeko eta zeharkakoak sustatzeko eta ebaluatzeko. Bestalde, legegintzaldi honetan ez da Berdintasun Planik egon.

## INDARKERIA, LANA, ZAINKETAK, PARTE HARTZEA

**A) GENERO INDARKERIA** izan da 1997 eta 2004 bitartean Espainiako borroka feministaren kezka nagusia. Horrela, 2004ko Genero indarkeriaren aurkako lege integralak legegintzaldia ireki zuen. Heriotzak ez dira eten (2007an 74), baina zigor eskariak erraztu dira (4,3 18 urtetik gorako mila emakumeko) eta epaitegi espezializatuak sortu dira. Gizarte prebentzio eta arretarako sistema ez da guztiz aplikatzen. Genero Indarkeriaren aurkako Funtsak 9,5 milioi euro lortu ditu 2008rako Estatu Aurrekontuetatik, 2005ean lortu zituen 10 milioien eta 2006ko 12 milioien azpitik. Inbertsioekiko afektazioa besterik ez izatea eta Autonomia Erkidegoen eta udalen arteko banaketa esparru argi eta etengabeko baten gabeziak azken horiek Indarkeriarekin lotutako 1/2004 Legeko 8 eta 19 artikulua, Gizarte Prebentzio eta Arreta integralari buruzkoak, bete ezin izatea eragiten du, urtariletik abendura, urtez urte, eskualdeko biktima guztiei dagokienez. 2007an 4,5 milioira murriztu zen eta programa berritzaileetarako besterik ez, eta ez etengabeko prebentzio eta arretarako. Nire ustez beharrezkoa da Estatua-AAEE-Udalak Kontzertatutako Plan bat Legearen aplikazioa finantzatzeko.

**B) LANA.** Gurean dugun Emakumeen Okupazio Tasa, azken 4 urteotan %37,5etik 44ra hazi bada ere, EB-27ko 20. postuan dago eta zailtasunak ditu 2010ean %60ra iristeko. Bestalde, emakumeen Langabezia Tasak (%10,5) Gizonena (%6,2) bikoizten du kasik. 2007ko Berdintasunerako Legeak neurri berriak txertatu ditu, Aitatasun-Baimena, laburra bada ere (13 egun) gizonen zaintzaile gisa jarduteko aukera eskaintzen diena, edota enpresetan Berdintasun Planak negoziatzeko beharra, esate baterako.

Etxeetako langileek, gehienak ere **etorkinak**, ez dituzte gutxienean lan eskubideak bermatzen eta azken horien erregulazioaren erreformaren zain daude. Laneko diskriminazio bikoitzaz gain, etorkinek (herritarren %10) genero indarkeriaren ondoriozko heriotzen %35 pairatzen dituzte eta abortuen %49.

**C) ZAINKETAK ETA LANEN ETA FAMILIAKO BIZIMODUA BATERATZEA.** Haurren eta mendeko pertsonen zainketa emakumeen eskuetan utzi izanak urtero 400.000ak lan merkatua utzi behar izatea eragiten du. 1999ko eta 2007ko legeetan ezarritako baimeenez gain, funtsezkoa da zainketa familiaren eta gizartearen artean banatzea eta, horrela, haurren eskolaratze lekuen zifrak handitzea. Izan ere, eskolaratze leku horiek 0 eta 3 bitarteko haurren %15entzako soilik dute gaitasuna. Bestalde, beharrezkoa da mendeko nagusientzako egoitzak, eguneko zentroak eta etxeko laguntza sortzea.

2006ko **Mendekotasun legeak** aurreikusitakoa baino aplikazio eskasagoa izan du 2007an eta, gainera, 18. artikulua araberak, **familiako emakumezko zaintzaileak**

arretarako bitarteko nagusitzat jo ditu. Horrela, zaintzaileei hilabeteko 390 edo 487 euro zuzendu zizkien, gutxieneko soldataren azpitik dagoen kopurua.

**D) DEMOKRAZIA PARTE HARTZAILEA ETA PARITARIOA.** Hauteskundeak 2007: Emakume gehiago, politika hobea Plataformak adierazi bezala, Berdintasunerako Legeak 5.000 biztanletik gorako udalerrietako Udaletan emakumezko zinegotzien kopurua 2003ko %32tik 2007ko %39ra igotzea eragin du. 5.000 biztanletik beherako herrietan, berriz, Legez behartuta ez zeudenetan, %27tik %36ra igotzea ekarri du. Gainera, Autonomia Erkidegoetako emakumezko diputatuen kopurua %41era igo da. Hala ere, Alkate (%85), Gobernu Batzorde (%75) eta Hirigintza, (%83), Ingurumen (%78) eta Ogasun (%72) Zinegotzi gehienak gizonen eskuetan egoteak eta emakumeek gizonetik duten errotazio bikoitzak hauteskundeek eskainitako sexu banaketa kaltetzen dute. Epaila eta tribunalek Berdintasunerako Legea aplikatu dadin ahaleginak egin dituzte baina Hauteskunde Batzorde batzuek, Bizkaiko probintzialek, esate baterako, ez dute halakorik egin.

#### >5.000 biztanleko Udaletako emakumezko zinegotziak 2007an

	ZINEGOTZIAK GUZT.	%EMAK.	EMAK. ZINEGOTZIAK
Errioxa	134	44,8	60
Madril	1.358	43,2	587
Balear Uharteak	578	41,3	239
Gaztela-Mantxa	1.102	40,7	449
Andaluzia	4.352	40,6	1.767
Valentzia	2.600	40,6	1.056
Extremadura	622	40,5	252
Ceuta	25	40,0	10
Melilla	25	40,0	10
Murcia	662	39,9	264
EAE	1.135	39,6	449
Gaztela eta Leon	904	39,6	358
Nafarroa	297	39,4	117
Asturias	531	39,4	209
Kanariak	1.155	39,2	453
Galizia	1.897	37,6	713
Kantabria	304	37,5	114
Katalunia	3.371	36,2	1.220
Aragoi	334	35,6	119
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.386</b>	<b>39,5</b>	<b>8.445</b>

Iturria: Barne Ministerioa

Euskadiko Berdintasunerako Legeari esker EAEko legebiltzarrean emakumezko diputatuen kopurua %52koa da. Horregatik, EAE feminizatuen dagoen bigarren autonomia erkidegoa da, Gaztela Mantxaren (%55) atzetik. 5.000 biztanletik gorako udaletan 449 emakumezko zinegotzi daude, %39,6.

Beharrezkoa da: hautatutako kargu guztien sexuaren arabeko desglose ofiziala, emakume elkarten aldetik parte hartzaileagoa izango den demokrazia baten norabidean aurrera egitea, Estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko Emakume Kontseiluak barne hartuz. Azken horiek emakumeek lanari, haur eta mendeko pertsonen zainketa familiaren eta gizartearen artean banatzeari, osasunari, hezkuntzari eta txirotasuna eta genero indarkeria ezabatzeari dagokienez dituzten interesak eta beharrak politika zehatz bihurtzen lagundu beharko dute. Berdintasunerako organismoen aurrekontuak handitzea ere beharrezkoa da.

EAEn Berdintasunerako Emakumeen Euskadiko Kontseilua sortzea aurreikusita dago, Emakundek emakume elkarteei kontsulta dezaten eman dien zirriborroaren arabera.



**MAHAI-INGURUA:**

**EMAKUMEEN AURPEGI  
DESBERDINAK: POBREZIA,  
INDARKERIA, PROSTITUZIOA,  
INMIGRAZIOA,  
ERREFUXIATUA...**

**Daniel Álvarez jauna (moderatzaila)**

*Kazetaria*

**M<sup>a</sup> Jesús Pérez Ruiz andrea**

*ASOCIACIÓN DE AMIGOS DE HUANCVELICAko Sentsibilizazio zuzendaria*

**Itziar Caballero González andrea**

*CEAREko Sentsibilizazio arloko koordinatzailea*

**Marian Arias Roncero andrea**

*ASKABIDEko presidentea*

**Ana Txurruka Etxezarreta andrea**

*CARITASEko Berdintasun teknikaria*

**Teresa González Garzón andrea**

*CARITASEko Indarkeria eta genero arazoetarako arduraduna*



**PARTE HARTZAILEEN AURKEZPENA: DANIEL ALVAREZ jauna (moderatzaila)**

**M<sup>a</sup> JESUS PÉREZ RUIZ andrea**, Amigos de Huancavelica (Peru) Elkarteko Sentsibilizazio Zuzendaria. Huancavelica Peruko Andeetan 4.000 metrora dagoen herria da, Limarekin alderatuz gero oso ezberdina. Huancavelicak orografia konplexua du eta M<sup>a</sup> Jesus Perezek oso gizarte errealitate gogorra bizi duten herritar indigenekin lan egiten du, bertan desagerpen eta bortxaketa ugari gertatzen baitira eta aipatutako delituok ez baitute inongo zigorrik jasotzen.

**ITZIAR CABALLERO GONZÁLEZ andrea**, Euskadiko CEARko Sentsibilizazio eremu-ko Koordinatzailea. CEAR asilo-eskubidea duten pertsonen eta pertsona etorkinen esku-bideen defentsaren alde lan egiten duen erakundea da. Esku hartzearekin eta intzidentzia politikoarekin lotutako jarduerak egiten dituzte. Itziar Caballerok erakundearen sentsibilizazio eta boluntariora eremuetan lan egiten du, ondorengoekin lotuta: intzidentzia politikoak, herritar kritikoak sustatzea. Sareko lana egiten du, kolaborazio eremu ezberdinetako beste erakunde batzuekin aliantzak identifikatuz.

**MARIAN ARIAS RONCERO andrea**, ASKABIDEko lehendakaria, 1985ean bi helburekin jaio zen erakundea: prostituzioan lan egiten duten emakumeei arreta ematea eta sentsibilizazioa eta salaketa, hots, errealitate hori eta emakume hauek dituzten arazoak gizarteari jakinaraztea. Erakunde hau beste batzuegandik ezberdintzen duena Askabidek kalean bertan lan egiten duela da: bildutako informazio guztia emakumeekin berekin eta emakume transexualekin lan egiten duten lekuetan izandako zuzeneko tratua bitartez lortu dute.

**ANA TXURRUKA ETXEZARRETA andrea**, Caritasko Berdintasun Teknikaria, Kideitu Europako proiektuan lan egiten du. Genero ikuspegia erakundearen baitan eta Caritasen gizarte edo bazterketa esparruetako programetan txertatzeaz arduratzen da. Caritasekin lan egiten duten emakumeak bi aldiz marjinatuta daude: emakumeak izateagatik eta gizarte bazterketako egoeran bizitzeagatik.

**TERESA GONZÁLEZ GARZÓN andrea**, Caritasko Genero Indarkeriaren arazoaren arduraduna. Aipatutako erakundeak 50 urte bete ditu 2.000 pertsona boluntarioren laguntzaz igualitarioagoa eta justuagoa izango den gizarte bat lortzera zuzendutako konpromisoari lotuta. Teresak 20 urte daramatza Caritasen lanean eta droga-mendetasuna, haurtzarora, boluntariora, etxerik gabeko pertsonak bezalako gaiekin lotutako esku hartze programa ezberdinen arduraduna da. Gaur egun emakumeenganako indarkeriaren tramenduaren programan lan egiten du.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzaila): Zein da legediak arlo honetan duen papera?**

**TERESA GONZÁLEZ andrea**

Legeek, funtsean, gizarte erreferentzia esparruak ahalbidetzen dituzte, momentu jakin batean behar ahalko ditugunak. Baina, era berean, "Eliza, indarkeria eta emakumea" hirukoteak oso koktel bitxia osatzen dute, soilik emakumea zigortzen zuen lege bat existitzen baita, hau da, "bekaturik ez baduzu lehendabiziko harria bota". Lege honetan oinarrituta, emakume bat hil zitekeen adulterioa egin izateagatik.

**M<sup>a</sup> JESÚS PÉREZ andrea**

Legediak beharrezkoak izan daitezke, baina ez dira konponbidea, pertsonen mailakaturiko arazoiek bultzatuta jokatzeko baitute. Beste hitz batzuetan, lehendabiziko mailan kontzientzia eta usteak egongo lirake eta bigarrenetan usadio sozial eta kulturalak eta azken mailan legearen mehatxuak egon beharko luke. Hau da, babes edo zigor gaitzke-ela pentsarazten digun legerik ez balego gizartearen jarrera, beharbada, bestelakoa izango litzateke. Horrenbestez, Huancavelican emakumeak hezitzearen eta eskolaratzea sustatzearen aldeko apustua egin dugu. Kontuan hartzekoa da pentsamoldea indigena dela, beste kontzeptu bat dela. Horregatik, garrantzitsua da beren kultura eta pentsakera errespetatzea, gure kontzientzia aldatzea eta beren kontzientzia eta ardura berak sustatzea. Garrantzitsua da eskolaratzea bultzatzea eta erdi-urren dauden emakumeei laguntzeko sareak sortzea, ginekologia zerbitzu bat. Horrenbestez, legedia ez da nahikoa.

**ITZIAR CABALLERO andrea**

Asilo eskubideari dagokionez, oso garrantzitsua da legediaren testuingurua, berau baita gauza asko ahalbidetzen edota ahalbidetzen ez dizkiguna. Legeak beharrezkoak dira baina ez dira nahikoak generoaren eta giza eskubideen esparruan. Legea beharrezkoa da, asilo legeak ez baitzuen genero arazoien araberrako pertsekuzioa jasotzen. Orduan, emakume hori babestu edo ez babestu erabaki beharra zegoen eta emakumea erabakia hartzen zuen pertsonaren arbitrariotasunari atxikita geratzen zen. Horregatik da beharrezkoa arauak zehaztea. Ildo beretik, 2007ko martxoko emakume eta gizonen arteko berdintasun errealerako lege organikoan asilo legea aldatzen duen eta generoaren araberrako pertsekuzioa azpimarratzen duen xedapen bat jaso da. CEARerako funtsezkoa zen aipaturikoa modu esplizituan adieraztea, baina oraindik asko dago egiteko. Espainiako asilo legea nahiko mesedegarria da, baina arazoa ez datza legean, azken horren aplikazioan baizik, interpretazio mugatzailean, mugak ixtean, asilo eskubideari dagokionez krisi testuingurua dagoelako.

Giza eskubideekiko ikuspegia aldatu egin da. Asilo eskubidea eskubide aringarria da, gertatu den egoera bati erantzuna ematen dion eskubidea da, oso garrantzitsua da arazoiei dagokienez jokatzeko baina, batik bat, ondorioei dagokienez jokatu beharra dago, bi

esparruak batera koordinatuz. Giza eskubideek ikuspegi androzentrikoa dute eta horren inguruko geroz eta kontzientzia handiagoa dago. Hori dela eta emakumeen giza eskubideen urraketari erantzun egokia emateko bitartekoak prestatzen ari dira. Asiloaren kasuan, genero ikuspegitik ere existitzen ziren eskubideak berrikusi dituzte, identifikatzen ez ziren giza eskubideen urraketak gertatzen zirela konturatu dira. Beste hitz batzuetan, emakumeek emakume izate soilagatik pairatzen zuten pertsekuzioa ez zen funtsezko eskubideen urraketa kontsideratu duela gutxi arte. Asilo eskubidearekin lotuta, ondorio lesiboak dituzten diskriminaziozko pertsekuzio egoerei erantzun bat bilatu nahi izan zaie. Genero arrazoiengatik pertsekuzioa pairatzen duten pertsonen eskubide hau izateko aukera aztertzen ari dira gaur egun.

**ANA TXURRUKA andrea**

Denborarekin erabilgarriak izango diren aldetik, Berdintasunerako Legeak lortzea urrats garrantzitsua da, baina ez da nahikoa, lege batek ezin baitu ezinbestean gizarte jokabidearen aldaketa automatikoki eragin: une honetan berdintasun formala existitzen da, baina oraindik ere ez dugu berdintasun erreala erdietsi. Berdintasun formaletik errealerako urrats hori lortzeko legeak behar ditugu, baina baita gizarte esparruko aldaketak, kontzientziazioa eta jarrera aldaketa ere.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Non antzematen da batik bat betetzen ez dela?**

**ANA TXURRUKA andrea**

Jendeak apur bat betetzen ditu legeak oro har, baina egunerokotasunean Eusko Jaurkitzaren eta Madrilgo gobernuaren Mendekotasun Legea eta Berdintasunerako Legea ez dira betetzen. Politikoki zuzenak diren deklarazioak dira baina ez dute aldaketa errealik eragiten.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Prostituzioari dagokionez, zein da legediarekin duen harremana?**

**MARIAN ARIAS andrea**

Ez dago erabateko adostasunik; alde batetik, giza eskubideekiko indarkeria prostituzioarekin estuki lotuta dago eta, bestetik, giza eskubideak urratzea jarduera horretan lan egitea ez onartzearen sinonimoa da. Horrek hasieratik balditzatzen du legedia zein izango den eta gai honekin lotuta zein neurri hartuko diren. Europan, Holandako eta Alemaniako legediek prostituzioa legekotzat dute eta berau lana dela kontsideratzen dute. Suediako ereduak, aldiz, zeharo abolizionista da eta bezeroa zigortzen du, uste baitu

berau dela prostituzioa existitzearen arrazoi nagusia. Espainian ordenantza eta legislazio ezberdinak ditugu, nolabait gai hau ordenatzen ahalegintzen direnak, eta horrek, praktikan, eremu honetan lan egiten duten pertsonen mekanismo errealean gabezia antzematea eragiten du. Espainian, prostituzio boluntarioa eta adinez nagusikoa ez da delitu bat, adinez txikikoetan, salerosketa, trafiko, etab. bezalako kasuetan izan ezik, baina onartutako jarduera ere ez da. Nik %90ean etorkinak eta emakume transexualak diren prostituta kolektiboekin lan egiten dut. Horrenbestez, problematika ez da prostituzioa soilik, beste ezaugarri batzuk ere kontuan hartzekoak dira, egoera haiek defendatzeko legezko bitartekoak falta direla agi erakusten dutenak. Prostituzioaren eremuan legediak, hau da, egingo den edo ez den jarduketak, izugarriko garrantzia du.

#### **TERESA GONZÁLEZ andrea**

Alde batetik protagonistei entzun beharra dago eta, bestetik, ez dut uste legeek, oro har, arazoak konpontzeko balio dutenik. Gainera, indarkeria hau pairatzen duten pertsonen tolerantzia handia izateko arazoa ere existitzen da, ez baitira gizaki gisa dituzten eskubideen urraketa bat antzemateko gai. Eta hori oso larria da. Garrantzitsua da norbaitek eraso bat, delitu bat, falta bat, pairatzen duela onartzea. Legeek hori jasotzen ez badute ezinezkoa da lan egitea.

#### **ITZIAR CABALLERO andrea**

Asilo eskubideak prostituzio behartuari erantzuna eman diezaioke. Emakume hauek ez dute inongo babesik, baina asilo eskubidearen ikuspegitik berau eskatzeko eskubidea izango lukete. Nolanahi ere, haiek ez dakite eta ez dago jakin dezaten inongo interesik. Egoera honen ardura nork duen zehazteko orduan, asiloak nolabaiteko zerikusia duela errepikatuko dugu beharbada. Horregatik, garrantzitsua da sarean lan egitea, CEARetik egiten den moduan, "asiloa eta generoa" sexu eta ugaltze eskubideekin lotutako gaiak lantzen dituzten beste erakunde batzuekin batera lan eginez. Salerosketaren gaiari dagokionez, mafiek eta pertsona horiek babesten dituen Estatuak berak zuzeneko ardurak dituzte.

#### **Mª JESÚS PÉREZ andrea**

Huancavelican ez dira nesken bortxaketak salatzen eta GKEak kexatu egiten dira. Kasu zehatz batean, neska bat bortxatu zuten, jendaurrera agertu zen eta bere gizarteko ingurukoek zeharo baztertu zuten. Huancavelican ez dira giza eskubideak errespetatzen.

#### **ANA TXURRUKA andrea**

Teresa Gonzalezek protagonistei entzutearen beharrari buruz esandakoa berresten dut eta Marian Ariasek azpimarratu bezala eztabaidatzen jarraitu behar dugu. Legedia positiboa da prostituzio behartua eta borondatezko prostituzioa ezberdintzeko, azken

horrek izan ditzakeen erreparo guztiekin. Beharrezkoa da prostitutek ere herritar estatusa lortzea.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzaila): Eta zer diote prostitutek?**

**MARIAN ARIAS andrea**

Ez dut bezeroaren kontua aipatu gabe utzi nahi, prostituzioak modu lotsagarri bezain nabarian erakusten baitigu gizarte honen moral bikoitza. Prostituzioan lan egiten duen emakumeak emagalduta bat, biktima bat eta izan daitekeen okerrena izaten jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, bezeroa gizon bat izan ohi da, guztiz anonimoa, ezindu estereotipoarekin lotzen duguna, zerbitzu honen beharra duena, etab. Nolanahi ere, esperientziak esaten digu bezeroaren profila ezkonduko gizon batena dela, seme-alabak dituen, gizartean integratutakoa. Balorazio moralak alde batera utzita, ez zait bidezkoa iruditzen bi pertsonen gauza bera egiten badute emakumea emagalduta izatea eta bestea, oster, gizon normala. Alde horretatik ikusita, prostituzioa ez da ezertxo ere aldatu. Gizarte justiziarekin lotutako gaia da. Zera galdetzen diogu geure buruari: zer nahi dute beraiek legeei dagokienez? Egia esan ez da beren lehentasuna, prostituzioa legeztatzeak ez ditu kezkatzen, zorrarekin, familiarekin, egoitza baimenarekin,... loturiko kontu guztiek baizik. Izan ere, inork ez du inoiz esaten "prostituta izango naiz", zure bizitzak bultzatzen zaitu aldi baterakoa bezala ikusitako egoera horretara. Protagonistek ez diote prostituzioaren erregulazioari inongo garrantzirik ematen, hori beren lehentasuna ez delako. Horregatik, beharrezkoa da arazoa beste ikuspegi batetik aztertzea. Bestalde, logikoa denez, prostituta aktibistenak dira beren funtsezko beharrak estalita dituztenak.

**TERESA GONZÁLEZ andrea**

Txirotasunak, edozein motatakoa dela ere, ez du aurpegi bakarra. Horrela, droga, prostituzioa, familia eta indarkeria maiz nahastu ohi dira eta oso egoera latza bizi duten pertsonen errealitate hori osatzen dute. Marian Arias zoriondu nahi dut bere argudioak hain modu argian aurkeztu izanagatik.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzaila): Zein da zerrenda publikoek maltratazaileak aditzera emateko duten eraginkortasuna?**

**M<sup>a</sup> JESUS PÉREZ andrea**

Beharrezkoa da delituaren arduradunak legearen bitartez zigortzea. Limara jaisten diren Huancavelicako neskatilak beren egoera jasanezinari irteerarik topatzen ez diotela-ko sartzan dira prostituzioaren munduan. Han ez dago legerik. Neskatilak ahaztuta daude.

### **ANA TXURRUKA andrea**

Nik zalantzan jartzen dut zerrendak ateraz indarkeria murriztuko ote litzatekeen. Delitua egin duenarenganako erabateko gizarte zigorgabetasuna dago eta garrantzitsue-  
na delitua salatzea eta gertaturikoari buruz gogoeta egitea da, gizarte kontzientziaren  
zein jarreraren eremuan.

### **ITZIAR CABALLERO andrea**

Ni Anarekin ados nago, ez baitut uste zerrendak ateratzeak arazoa konponduko due-  
nik. Asiloaren gaiarekin lotuta, genitalen mutilazioak, ohore krimenak etab. bezalako  
ondoriozko pertsekuziozko istorio ikaragarriak gertatu dira. CEARetik ez dute informazio  
hori estrategia gisa erabiltzen, horrela gauzak aldatzen ez direla uste baitute. Momentu  
jakin batzuetan, pertsonen istorioak jendaurrean aurkezten dituzte, beren baimenarekin  
beti ere, eskubide hau defendatzeko estrategiarekin lotutako tresna gisa, defendatuak iza-  
teko eta hona irits daitezten. Marian Ariasek asiloaren gaiari buruz azpimarratzen duena-  
ri dagokionez, legeak garrantzi handia du eremu honetan, asiloa eskatzen duten pertso-  
nak etorkinak izan ohi direlako. Horregatik, beren herrialdeko egoeraren arabera kontsi-  
deratuko dituzte errefuxiatu edo ez. Era berean, legediaren gaia zinez garrantzitsua da,  
legediaren garrantziari buruzko eta erakunde bakoitzaren barne hausnarketarako plante-  
amenduak sor daitezkeelako. Askabideren eginkizuna pertsonen esku hartzeari eta lanari  
lotuta egon daiteke beharbada, baina legediaren aldaketan maila politikoan eragin deza-  
keten sektoreekin ere koordina daiteke. Asiloari dagokionez, aldiz, pertsona errefuxia-  
tuentzako oso zerbitzu onak eta egokiak eta haiek eskatzen digutenari erantzun erreala  
eskaintzen ditugun arren, ezer gutxi egin dezakegu hona iritsi ezin badute. Horregatik, oso  
garrantzitsua da politiken gainean intzidentzia egitea, egun ohikoa baita asilo eskubidea  
urratzea eta mugak ixteko joera existitzen delako.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Zein eragin izan dezakete delituen ardu-  
radunen zerrendek mass media delakoetan?**

### **MARIAN ARIAS andrea**

Ez dakit zein punturaino diren zerrenda horiek eraginkorrak, hori beharbada beste  
eztabaida bat izan liteke: Non dago muga, beste pertsona baten eskubidea urratzen al  
dugu? Gizarteratze eskubidearekin bateragarria izan liteke? AEBetan prostituten bezero-  
en argazkiak argitaratu izan dira eta ez da prostituzioa murriztea lortu. Beste alde bate-  
tik, Suediako ereduak bezeroa zigortzen du (isunak ordaintzen dituzte baina ez doaz kar-  
tzelara) eta, horren ondorioz, prostitutek bezeroarekiko negoziazio gaitasun txikiagoa  
dute. Beraz, bezeroaren kriminalizazioak ez die hobeak diren baldintzetan lan egiteko  
inolaz ere laguntzen. Legearen asmoa oso ona da baina praktikan, beharbada, ez da  
hasiera batean planteaturiko onura lortzen. Bere eraginkortasuna zalantzan jartzen dut.



**TERESA GONZÁLEZ andrea**

Delituaren biktimek ez dagokien babes sistema bat sustatuko dutela pentsatzeko arriskua dago, babesaren paper hori beste esparru instituzional batzuen eskuetan baitago. Gainera, uste dut ikara ematen duela egin duten zerbaitegatik pertsonak etiketatzea eta egin duten hori jendaurrean aditzera ematea. Ni zerrenden aurka nago.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Klean pil-pilean dagoen beste kontu bat, inmigrazioak gora egin izanak emakumeen eskubideen urraketa kopuruak ere gora egitea eragin du?**

**ANA TXURRUKA andrea**

Nik uste dut kontu honetan aurreiritzi arrazista asko dagoela, patriarkatua eta indarkeria leku guztietan baitaude.

**M<sup>a</sup> JESUS PÉREZ andrea**

Anak esan duena interesgarria iruditzen zait, Huancavelican emakumeen %80k indarkeria motaren bat pairatzen dutelako beren bikotekidearen eskutik.

**MARIAN ARIAS andrea**

Emakumeen aurkako indarkeria egoerak leku guztietan gertatzen dira, baina gakoa bulnerabilitate egoeran dago, emakume etorkinen egoerak okerragoak baitira gureak baino eta horrek beren defentsarako askoz bitarteko gutxiago izan ditzatela eragiten du. Ezin dugu inmigrazioa erruduna dela esan.

**TERESA GONZÁLEZ andrea**

Caritasen zerbitzu juridikoak paperen erregulazioari eskaintzen dio ia bere ahalegin guztia. Zerbitzu honetara jotzen duten emakumeak ez dira emakume ahulak, ez eta egoitzaz aldatzea erabakitzeagatik gaitasun gutxikoak ere, erabaki hori hartzeko, egia esan, beharrezkoa delako oso indartsua izatea. Gainera, batzuetan ez dira beren herrialdeetako emakumerik txiroenak eta egoitzaz aldatzen dira tratu txarrei eta indarkeriari irteera bat bilatzeko. Beren familiakoengandik etab. banatu behar izaten dute eta horrek beren egoera ekonomikoa, legezkoa eta herritar bezala dituzten eskubideen onarpena lausoagoak izatea eragiten du. Horregatik, oso garrantzitsua da emakume horiek duten indarrari erreparatzea, biktima etiketan oinarritu gabe.

#### **ITZIAR CABALLERO andrea**

Estereotipatzeko joera dugu eta ados nago Teresa Gonzalezekin emakume horien indarra nabarmentzearen beharrari dagokionean. Islamaren estereotipoa agertu ohi da, ezezaguna zaiguna, eta CEARerako ere ikaspen gisako erronka bat dena. Pertsona errefuxiatuen ezaugarriak nabarmenenak beren indarra eta beren bizitza modu egokian berre-raikitzeko aukera izatea dira. Bestalde, beren herrialdeetan geratzen diren pertsonak ere gogor borrokatzen ari dira; Afganistanen, esate baterako, emakume elkarte ezberdinak existitzen dira, beren eskubideen alde borrokatzen ari direnak. Hori dela eta, garrantzitsua da errealitatea bere osotasunean ikustea, alde positibo hori ikustea.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailerak): Zeintzuk dira herrialde honetan aiseen urratzen diren emakumeen eskubideak?**

#### **TERESA GONZÁLEZ andrea**

Norbaitek emakume bakar baten bizitzarako eskubidea ezabatzen duenean, eskubide posible guztiak urratuta daude jada. Garrantzitsua da ikuspuntu kualitatibo batetik ikustea, eta ez ikuspuntu kuantitatibo batetik.

#### **MARIAN ARIAS andrea**

Prostituzioaren eremuan, emakume hauek duten alde positiboa nabarmentzea. Emakumeek ulertzen ez dutela, gaixoak... oinarritik abiatzea eta baliozko hizketakideak direla pentsatzea ez da gauza bera. Foro hauetan biktimizatu jatzeko joera handia dago. Emakumeek arazoak izango ditugu baina ez gara ergelak, prostitutak baliozko hizketakideak dira eta garrantzitsua da haiei beren fedd-backa eskatzea.

#### **ANA TXURRUKA andrea**

Indarkeriari buruzko legeak emakumeak asko biktimizatu ditu tratu txarren gaiari dagokionez. Hedabideek delitua erakusten dute berri gisa eta ez hainbeste emakumeek ekintza horiei ematen dieten erantzuna. Garrantzitsua da emakumeen indarra nabarmentzea eta hori, oro har, ez da aditzera ematen.

#### **M<sup>a</sup> JESÚS PÉREZ andrea**

Huancavelican duten arazo nagusia emakumeen eskubideei, etxeko indarkeriaren kasuan, erreparatzen ez zaiela da.

**ITZIAR CABALLERO andrea**

Oro har, emakumeen giza eskubideak bigarren mailako eskubide gisa sustatu ohi dira, esate baterako, prostituzio kasuak, ugaltze eskubideak. Asiloari dagokionez, emakumeen giza eskubideak bigarren mailako eskubideak dira. Generoaren arabera pertsekuzioari lotuta, ez dute aurrekaririk izan. Kasurik onenetan, joera gutxieneko babes ematea da, babes subsidiarioa, hau da, emakumeen eskubide horiek urratzea gutxieneko eskubidearen parekoa da. Kasu bakar batean ere ez da estatuturik eman salerosketa edota prostituzio behartua direla eta, ez eta genitalen mutilazioaren ondorioz ere, babes subsidiarioa besterik ez.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Hori guztia Espainian gertatzen da, eta Europako gainontzeko herrialdeetan?**

**ITZIAR CABALLERO andrea**

Herrialdearen arabera. Oro har, argi dago azken 20 urteotan, Europako herrialdeetan, asilo eskariak izugarri murriztu direla, ez munduan gizarte hobekuntza bat gertatu delako, baizik eta asilo eskubidea krisi testuinguru batean dagoelako. Horretarako arrazoieta bat aipatutako eskubidea ez ezagutzea da. Jendeak ez daki pertsona errefuxiatuak existitzen direla. Emakumeen giza eskubideen urraketari emandako erantzunari dagokionez, Erresuma Batuak emakumeak hobeto babesteko genero zuzentzaile batzuk ditu. Hala eta guztiz ere, Europar Batasuneko asiloaren esparruan, generoaren gaiari dagokionez, oso modu tanjenzialean aztertzen dute. Esplizituki jasotzen duen gauza bakarra pertsekuzio bat gizon edo emakumea izatearen arabera ezberdin gauzatu daitekeela da.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Jendeak galderak egiteko txanda da.**

**ITZIAR CABALLERO andrea**

Orientazio sexualarekin lotutako genero arrazoiengatik pertsekuzioari dagokionez, gizon homosexualen emakumeek baino babes handiagoa dute. Badago beren orientazio sexuala zela eta pertsekuzioa jasan zuten Kolonbiako bi emakumeren kasua: estatutua eman zitzaion baina ez da aurrekari politiko bihurtu. CEAREN alaitasunez baina tentu handiz jaso genuen berria, propaganda mediatikoa handia izan bazen ere. Familia barneko tratatu txarrak pairatzen zituen Pertsiar Golkoko emakume baten kasua bezala, baina azken hori ere ez da aurrekari politiko bihurtu.

Aipagarria da Aldarte-rekin kanpaina bat egin genuenean gizon homosexualen giza eskubideen urraketa errazago dokumentatu ahal izan zela. Emakume lesbianen kasuan, aldiz, eskarien aldeko probak topatzea ere zaila izaten da. Badirudi ezinezkoa dela emakume bat lesbiana izan daitekeela ere pentsatzea.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Ba al duzue esperientziarik orientazio sexualarekin lotutako eskubideen urraketa eremuan?**

**MARIAN ARIAS andrea**

Aurreko urtean Askabidek prostituzioa eta emakume transexualak hizpide zituen genero indarkeriari buruzko ikerketa bat argitaratu zuen. Indarkeria tasarik altuenak prostituzioaren munduan lan egiten duten emakume transexualei eragiten die. Kolektibo hau bereziki bulnerablea da eta eremu honetan genero mailako etengabeko borroka dago. Bazterketa, inmigrazioa, etab.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Arazoarekin lotutako larritasun pertzepzioa hazten ari al da?**

**TERESA GONZÁLEZ andrea**

Salaketa kopuruak gora egin du, baina, beharbada, arazo errearen %10 eta %25 artean besterik ez dira salatzen. Gizartearen pertzepzioari dagokionez, hedabideek gehiago aztertu beharko lukete eta hau mass media delakoei zuzenduta esaten dut.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Hizlariei ematen diet hitza**

**ITZIAR CABALLERO andrea**

Genero arrazoiengatik gertatzen diren asilo eta pertsekuzio egoerak hobeto ulertzen ditugu. Oro har, errealitatea partzialki ikusten dugu eta garrantzitsua da arazoa ikustea, baina baita alde positiboari erreparatzea ere. Adibide bat Palestinako "Beltzeko emakumeak" erakundea izan liteke. Erakunde horretan emakume palestinarrek eta israeldarrak daude eta denek batera okupazioaren aurka eta bake prozesu baten alde borrokan jarraitzen dute. Zoritxarrez, hori ez da hedabideetan agertzen eta, argi dagoenez, errealitatearen oso alde garrantzitsua da.

# GATAZKA BELIKOEK EMAKUMEENGAN DUTEN ERAGINA

María Villellas Ariño andrea

*Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Bakearen  
Kulturaren Eskolako Ikertzailea*

---

Gatazka armatu garaikideek, edozein gizarte gertakariren antzera, patriarkatuak gizartean ezarri duen sexu banaketaren ondorioak pairatzen dituzte. Horrela bada, lehenengo begiratuan, pertsona oro, bere gizarte egoera edozein dela ere, gatazka armatuen indarkeriaren eta suntsipenaren biktima izan daitekeela ondoriozta genezake. Hala ere, gatazkak beste ikuspegi batetik, generoaren ikuspegitik, alegia, aztertzen ditugunean gatazken pertzepzioa bestelakoa da zeharo.

Generoa honakoa dela uste dut: "ezberdintasun sexualaren eraikuntza kulturala azpimarratzen duen kategoria, hau da, emakume eta gizonen jarrera, jarduera eta funtzio ezberdinak kulturalki eraikitzen direla, biologikoki ezarri baino. Genero ikuspegiak kategoria horren potentzial analitikoari eta errealitatearen transformatzailea den potentzial politikoari egiten dio erreferentzia. Ikuspegi honetatik, generoa emakumeak munduan nola dauden aztertzeko tresna bat baino gehiago da, proposamen politiko bat ere bada, ekitatiboak eta justuak diren genero harremanak eraikitzeko konpromisoa eskatzen duten aldetik."<sup>2</sup>

---

<sup>2</sup> Murguialday, C. "Género" Ed. Hegoa-n, *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, 2000, Icaria

Generoak gaur egungo gatazka armatuetan duen dimentsioaren gaia aztertzen has-teko beharrezkoa da bi xehetasun aipatzea. Lehenik eta behin, boterearen kontuari buruz-ko hausnarketa labur bat, funtsezkoa generoaren ikuspegitik indarkeriaren azterketa egin nahi badugu. Bestalde, gaur egungo gatazka armatuen xehetasun orokorreari buruzko gain-begirada bat.

Garrantzitsua da, beraz, gatazkek emakumeengan duten eraginari buruz soilik ez hitz egitea, eragin hori genero ikuspegi batetik nolako den ere kontuan hartu beharra dago, hots, gizon eta emakumeak gatazka armatuak dituzten gizarteetan nola erlazionatzen diren, erlazio horiei zein botere egiturek eragiten dieten eta gatazka armatuek egitura horiei nola eragiten dieten.

Gatazka belikoek emakumeengan duten eragina ulertzeko beharrezkoa da gatazka armatu horien ezaugarri batzuk kontuan hartzea. Gatazka armatuek hainbat aldaketa jasan dituzte azken hamarkada hauetan. Gaur egun herrialde baten mugen barnean ger-tatu ohi dira eta oso ondorio larriak dituzte populazio zibilarengan eta, beraz, emakume-engan, azken horiek baitira gizarte zibilaren gehiengoa gatazka armatuko testuingurue-tan. Hiriguneetako, merkatuetako, erlijio zentroetako, emakume asko pilatzen diren lekue-tako atentatuak ohikoak dira Irak, Afganistan, Tailandia, Sri Lanka, Israel, Palestina eta beste hainbat herrialdetako gatazka armatuetan.

Populazio zibila eragile armatuen xede bihurtzen da eta erreklutamendu behartua, pertsonen aurkako minen erabilera, sexu indarkeria eta lan behartua bezalakoak pairatu behar ditu. Azken urteotan emakumeak eremu militarrean ere sartu diren arren, soldadu gehienak gizonak izaten jarraitzen dute. Emakumeek, populazio zibilaren gehiengoa diren aldetik, gatazken ondorio horiek oso modu berezian pairatzen dituzte.

Gatazka armatuek herrialde horretako gizarteko genero banaketak indartu egin ohi dituzte. Lanaren sexu banaketak garrantzi handiagoa irabazten du, rol tradizionalak indar-tu egiten dira: horrela, gizon eta emakumeei esleitutako eginbeharrak ezin hobeto muga-tuta geratzen dira. Segurtasuna, babesa, indarkeriaren erabilera gizonen eskuetan gera-tzen dira batik bat, gudarosteetan eta oposizioko talde armatuetan geroz eta emakume gehiago sartzearen ondorioz monopolio hori amaitzen ari bada ere. Dena dela, eremu militarrean geroz eta emakume gehiago egoteak esparru horien maskulinizazioa ezaba-tzeko balio izan al du?

Era berean, zainketa eta sostengu lanak, gatazka armatuko egoera batean azken horiek existitzea paradoxikoa dirudien arren, emakumeen eskuetan daude batik bat. Gerren ondorioz emakumeek zuzentzen dituzten familien kopurua asko hazten da, ema-kumeak mendeko pertsonen arduratzen dira eta baita familien sostengu ekonomikoaz eta oinarritzko beharrak asetzeaz ere, gizonen borrokan aktiboki parte hartzen duten bitarte-an.

Gatazka armatuek emakumeengan dituzten ondorioak asko diren arren, hemen horietako bi aipatuko ditut, bereziki garrantzitsuak direlako eta indarkeria armatua for-malki bukatu ostean ere existitzen jarraitzen dutelako. Lehenik eta behin emakumeen lekualdatze behartuei buruz hitz egingo dut, eta horren ostean sexu indarkeria gerrarako arma gisa (gerrarako armarik erabilienetakoa eta gaur egungo gatazka armatu gehienu-tan existitzen dena) erabiltzeari buruz.

Gatazka armatu garaikideen ondorio nabarmenenetako bat indarkeriaren ondorioz pertsona ugarik beren jatorrizko lekuak utzi eta beste batzuetan errefuxiatu behar izatea da, beren herrialdeetan dela edo beste herrialde batzuetan dela. ACNURen arabera, errefuxiatuen erdia gutxienez emakumeak eta umeak dira. Hala eta guztiz ere, eta lekualdatze behartuaren gaia genero ikuspegitik aztertze aldera, esan beharra dago emakume horiei beren kargupean dauden pertsonak gehitu behar zaizkiela: umeak, gizonak eta zaharrak.

Lekualdatze behartuak, errefuxiatu eta desplazatuentzako esparruetan bizi beharrak, laguntza humanitarioaren mende bizitzeak, izugarri eragiten diete egoera horretan dauden gizon eta emakumeen bizitzari. Lekualdatzearekin batera familia buru bihurtzen diren eta mendeko pertsonen sostenguaz beren kasa arduratu behar diren emakumeentzako egoera hau izugarritzko erronka da. Ordaindutako lana egingo duten lehendabiziko aldia izan daiteke, adibidez. Edota laguntza humanitarioa lortzeko desplazatuak direla ziurtatzen duen dokumentazioa eskuratu beharko duten lehen aldia.

Lekualdatze behartuak, maiz, emakumeek beren jatorrizko lekuetan dituzten familia eta gizarte laguntza sare tradizionalak etetea eragiten du. Gainera, lekualdatzeak segurtasun gabezia izugarria ere eragiten du emakume askorentzat, eta ez bakarrik ekonomikoa, baizik eta baita fisikoa ere: sexu indarkeria, gehiegikeriak eta esplotazioak izugarritzko eragina dute errefuxiatu-esparruetan eta emakume batzuentzat prostituzioa da baliabide ekonomikoak lortzeko eta beren eta beren familien oinarrizko beharrak asetzeko bide bakarra. Lekualdatze behartuaren testuingurua bizi duten emakumeen bulnerabilitate egoera hazi egin daiteke beren segurtasunarekin lotutako erabakiak, errefuxiatu-esparruen antolamendu espaziala edota laguntza humanitarioaren banaketa, esate baterako, hartzeko prozesuetatik kanpo geratzen direnean.

Sexu indarkeria gerraoste hotzeko gatazka armatuetan gehien erabilitako gerra armatariko bat da. Gatazka armatu guztietan kasik sexu indarkeriarekin lotutako pasarteak gertatu dira eta gatazka batzuetan proportzio izugarriak ere erdietsi dituzte. Nazio Batuek gatazka horietako batzuetan gerrarako arma gisa erabilitako sexu indarkeriari buruz dituen zifrak ikaragarriak dira: batez besteko 40 emakume egunero bortxatuak dira Kivu Sur-en (Kongo DM); 20.000 eta 50.000 emakume artean bortxatuak izan ziren 90eko hamarkadan Bosniako eta Herzegobinako gerran; 50.000 eta 64.000 emakume artean, Sierra Leonako barneko desplazatuak denak ere, sexu indarkeria pairatu izan zuten eragile armatuen eskuetan; 250.000 eta 500.000 emakume artean bortxatuak izan ziren Rwandako 1994ko genozidioan. Zifra hauek erakusten dutenez, ez da gertakari puntual eta isolatua, alderantziz baizik. Sexu indarkeria ohikoa da gatazka armatu gehienetan.

Sexu indarkeria helburu ezberdinak dituen gerrako arma da. Lehenik eta behin, dimentsio indibiduala du: biktima mendean izatea, sexu gehiegikeriek eragiten duten izuaren bitartez. Sexu indarkeriaren biktima diren emakumeetariko asko soldadu eta borrokalarien esklabu sexual ere bihurtzen dira. Horrela, sexu indarkeria denboran luzatzen da eta emakumeen autonomia pertsonala edo sexuala zeharo ezabatzen ditu. Yolanda Aguilarrek dioen bezala, "sexu indarkeriak emakumeen zapalkuntzaren sintesi politikoa islatzen du. Jabetza eta mina eragiten dituelako. Ekintza batek sintetizatzen duen gertakari politikoa da, emakumeak objektu huts bihurtzen dituen eta gizonen egoera patriarkalaren muturreko erakuslea".

Emakumeen sufrimendua bortxa daitekeen gorputz baten, gerra harrapakin baten, barruan gertatzen da. Trintxerarik gabeko gatazka armatu berrietan bataila eremua bertara igaro da.

Beste alde batetik, sexu indarkeriak dimentsio kolektibo garrantzitsua du, haren erabileraren bitartez komunitate etsai guztia umildu nahi baitute, eta ez soilik sexu indarkeriaren biktima den emakumea. Emakumearen gorputza, gizonaren eta gizartearen jabetza dena, etsaiari iraina eta boterezko mezua helarazteko bitartekoa da. Beste hitz batzuetan, emakumearen gorputza erabili ohi da azken horiek eta komunitate etsaia kontrolatzeko. Sexu indarkeriaren biktima diren emakumeek etsaiak beren gizartearen gainean duen boterearen adierazgarri dira. Emakumeen gorputzak iraina, kontrola eta boterea bezalako mezuak transmititzeko bitartekoak dira.

Gehitu beharra dago sexu indarkeriaren osteko prozesuan indarkeriaren biktima izan diren emakumeak baztertzeko eta estigmatizatzeke joera dagoela. Izan ere, emakumeei gertatu zaienaren errudun eta arduradun direla esan ohi zaie, sexu indarkeria ekiditeko gai izan ez direla eta sexu esperientziaren bitartez gozatu ere egin dutela. Emakumeen sexualitatea, ia beti bezala, errudun izatearekin lotu ohi da, izugarritzko indarkeriazko esperientzia behartuei buruz hitz egiten ari garen arren.

Estigmatizazio horrek sexu indarkeriaren ikusezintasuna indartzen du, emakumeek oro har, erruduntzat joko dituzten beldur, oso gutxitan salatzen baitituzte sexu indarkeria egoerak. Ikusezintasun honek, alde batetik, erasotzaileen zigorgabetasuna betikotzen du eta, bestetik, biktimak gertatutakoa gainditzeko aurre egin beharreko oztopoak biderkatzen ditu, emakume horiek gizarte laguntza oso mugatuta baitute. Gainera, estigmatizazio horrek ondorio ekonomikoak ere baditu, emakumeak komunitateko sare sozial, laboral eta produktibotik kanpo uzten baititu. Bestalde, familiek berek sexu indarkeria pairatu duten emakumeak baztertzen dituzte. Gainera, ekonomikoki mendeakoa diren edo oso baliabide gutxi dituzten emakumeen kasuan, indarkeria egoera batetik irtetzeko zailtasunak askoz handiagoak dira. Egoera hori larriagoa da oraindik ere sexu indarkeriaren ondorioz GIB/HIESa bezalako sexu transmisioko gaixotasunekin kutsatu diren emakumeentzako.

Gatazka armatuek, gainera, oso ondorio larriak dituzte emakumeen osasunean, ez bakarrik sexu indarkeriaren eragina eta GIB/HIESaren hedapenarengatik, baizik eta baita emakume askok sexu eta ugaltze edota amentzako eta haurrentzako osasunerako arreta zerbitzuak lortzeko modurik ez daukatelako ere. Gatazka armatuek berebiziko eragina dute emakumeen ugaltze osasunean, amatasunaren arrazoi biologikoa eta izaera sozialeko beste faktore batzuk direla eta.

Horrela, indarkeria armatuak eragiten duen estresak eragin larria du emakume haurdunengan eta bularra ematen ari direnengan, gizarte edo familiaren funtsezko laguntza sareak eten egin diren testuingu batean, haurdunaldiak iraun bitartean zein amatasunaren lehendabiziko hilabeteetan.

Gatazka armatuek indarkeria armatua amaitu eta bake akordioak sinatu eta urte asko beranduago ere irauten duten suntsipena eta biolentzia uzten dituzte. Emakumeentzako, gerra txirotasuna, senideak hiltzea, oinarritzko laguntzaren sarea etetea, sexu indarkeria, lekualdatze behartuaren parekoa da. Gainera, leku askotan, gatazka armatuak amaitzeaz



batera etxeko indarkeriak gora egiten du. Hala eta guztiz ere, gatazka armatuak ez dira ikuspegi bakarreko errealitatea emakume guztientzat. Emakume batzuei gatazka armatuek enponderazioa, ordura arte debekatuta zituzten gizarte lekuetara sartzeko eta parte hartzeko aukerak eskaini dizkiete. Baieztapen horren bitartez ez dut indarkeriaren erabilera gizartea aldatzeko bitarteko gisa justifikatu edota, inondik inora ere, legitimizatu nahi. Baina onartu beharra dago, gatazka armatuek, oro har, suntsipena eta indarkeria eragiten dituzten arren, emakume batzuei beren komunitateetan gehiago parte hartzeko eta tradizionalki gizonenak ziren eremuetan sartzeko aukerak eman dizkietela. Baieztapen horren bitartez, aldiz, argi utzi nahi dut emakumeak ez direla gatazka armatuen biktima pasiboak.

Emakume batzuentzat, beren herrialdeetan gatazka armatu bat existitzeak politikoki eta sozialki parte hartzeko lehen aukera eskaintzen die. Indarkeria horrek populazio zibilarengan eta, beraz, emakumeengan duen eraginaren ondorioz, herrialde ezberdinetan gerraren aurkako emakume mugimendu ugari sortu ohi dira. Horrela, eragile armatuei indarkeria armatua eteteko eskariak, eragile armatuek egindako giza eskubideen urraketan salaketak, desertoreei laguntzea eta desagertutako pertsonak non dauden jakiteko informazioa eskatzea emakume erakundeak gerraren aurka egituratu dituzten ardatzetariko batzuk dira. Aipatutako horiek in lotuta, emakume asko biktima pasibo izateko gizarate aldaketan protagonista izatera igaro dira. Beren gertuko senideak hiltzeak ere emakume asko indarkeria armatuaren ondorioei dagokienez kontzientziatzea eragin du. Era berean, gerraren aurkako mugimenduetan parte hartzera bultzatu ditu.

Zapalkuntza eta fundamentalismoa nagusitzen diren testuinguruetan, Afganistanen esate baterako, emakumeek erresistentziarako eta beren askatasunerako aukerak izateko estrategiak sortu dituzte, osasuna eta hezkuntzaren kriminalizazioa bezalako giza eskubideen urraketari dagokionez. Erregimen talibanak eta gerrak iraun bitartean emakume batzuek umeentzako eskola klandestinoak sortu zituzten eta beharrezkoa zuten emakumeei osasun laguntza eman zieten. Gainera, erregimen talibanak Afganistan munduarekiko zeharo isolatu zuen garaian, horietako emakume batzuk gainontzeko herrialdeei bertako emakumeen egoeraren berri emateko mobilizatu ziren.

Zoritxarrez, emakumeek gatazka armatuan duten jarrerari dagokienez nagusitzen den irudia indarkeriarekiko pasibitatea da, indarkeriaren xede izatearena. Hala ere, emakume asko ekintzarako gaitasun kritikoa duten pertsonak dira, suntsipenaren erdian ere gai dira beren bizitzaz arduratzeko eta beren familien sostenua bermatzeko. Gatazka armatuak eta azken horiek emakumeen bizitzan eta gorputzean dituzten ondorioak genero ikuspegitik aztertzeko, ezinbestekoa da emakume askoren bizitza esperientzia biktima paperera mugatzen duen diskurtso mugatzailea alde batera uztea.

Beharrezkoa da gehiago ez ezkutatzea, indarkeria pairatu arren berau gainditzeko mobilizatzen diren emakumeak, giza eskubideen urraketan konplize isil bihurtzen ez direnak, patriarkala ez den eta giza harremanetarako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko lan egiten duten emakumeak aditzera ematea. Mahai gainean indarkeriak emakumeengan dituen ondorioak alde batetik eta emakume askok indarkeria horri eman dioten erantzun antolatua bestetik jarritz soilik egin ahalko dugu gatazka armatuen inguruko egiazko genero azterketa.



# EMAKUMEAK GATAZKAK KONPONTZEKO PROZESUETAN

Ainhoa Aznarez Igarza andrea

*Ahotsak-eko kidea*

---

Guk, emakumeok, eta botereak Frankoren garaian genuen harremana aztertuz hasi nahiko nuke nire hitzaldia. Falangearen Atal Feministak "emakume izateari" buruz zioena, emakumeon kirola eta gimnasia gure etxeetan, ikasi behar genuena eta behar ez genuena etab. bezalako gai ezberdinei buruz Interneten dauden diapositiba batzuk ekarri ditut.

Izugarria da gizartean duela nahiko urte gutxi zein balio existitzen ziren ikustea, balio horiek baitziren emakumeok gizartean izan behar genuen papera zehazten zutenak. Orduz geroztik, gure planteamenduan aurrera jarraitu dugu eta gizarteak emakumeei berei esker ere hobera egin du.

Nire hitzaldia esperientzia pertsonaletan oinarrituta egongo da eta hau Ahotsak emakume mugimenduari esker posible izan da.

Ahotsak 2006an sortu zen eta orduan ezagutu ahal izan zuen gizarteak, baina ekimen honi duela urte batzuk ekin genion, ia 2003an. Diskretuki hitz egiten hasi ginen, ideologia politiko ezberdinak defendatzen zituzten emakumeei, kultura ezberdinetakoei, sindikatu ezberdinetakoei... deituz. Emakumeen artean zerbait egitea zen gure asmoa, horretaz ohartuz gero hedabideetan, estatu argazkietan, nazio jardunaldi edo kongresu-takoetan, etab. gizonak agertzen baitira oro har.

2003an oso garai zailak bizi genituen, ia egunero hilketa bat gertatzen baitzen, zerbait egin beharra zegoen. Zergatik ekin horrelako zerbaiti? Tira, aurreko hitzaldian esan

den bezala, beste mundu batzuetan, beste herri batzuetan emakumeak ere elkartu egin dira eta batera lan egin dute, elkartasunean, eta proposamenak egin dituzte. Guk nahi genuena zera zen, gure ikuspegian oinarrituta proposamenak adostea eta bultzatzea. Poliki-poliki, Eusko Jaurlaritzan, emakumezko legebiltzarkideak euren artean diskretuki elkartzen hasi ziren. Izan ere, gizonak zertan ari ziren jakiten bazuten... proposamen horien protagonistatzat aurkeztuko zuten euren burua. Eta horrela, poliki-poliki, elkar eza-gutzen hasi ginen, planteamendu politiko ezberdinekin, baina lehendabizikoa hori zen. Elkar ezagutzea.

Mundu honetan ideia guztiek merezi dute defendatuak izatea, baina, hori bai, horretarako inongo indarkeriarik gabeko testuingurua beharrezkoa da. Hori ezinbestekoa da lanean, hitz egiten, gauzak adosten... hasteko. Kontuan hartu beharra dago 2003an Espainiako presidentea beste bat zela, une latzak ziren, eta garai zailak bizi ditugunean aukerak proposatzea, lantzea eta sustatzea zailagoa da oraindik ere. Testuinguru arrunta-goak ditugunean errazagoa da akordioak lortzea. Testuinguru zailak ditugunean zailagoa izan ohi da akordioak lortzea eta gehiago lan egin beharra dago, ordu gehiago "sartu" beharra dago. Baina horrek azkenean, nire iritziz bederen, izugarritzko etekina du, beste pertsonak hobeto ezagutzen dituzu, edozein negoziatziotan beharrezkoa den konfiantza lantzen hasten zara.

Egia da alderdi politikoetan, sindikatuetan, literatura eta kultura kontuetan, jende guztia berdina ez dela, guztiok ez ditugu helburu berak. Hemen ere garrantzitsua da pertsonak ezagutzea: nola pentsatzen duten jakitea, zer nahi duten, gatazkatzat zer ulertzen duten, garatzeko zein proposamen dituzten, zein konpromiso maila hartzen duten.

Hitz egiteko gogoia duten pertsonak ezagutzea, hori ezinbestekoa da eta horrela hasi ginen: hitz egiten, gainontzeko emakumeen kexak entzuten eta gainontzekoak ere nireak entzuten, nire proposamenak, helburuak... entzutea beharrezkoa delako. Nik uste dut politikan elkarriz entzuten jakin beharko luketela. Eta hor, guk, emakumeok, bide luzea egina dugu, gehiago garatu dugulako entzute aktiboaren praktika, asertibitatearena, bi hitzetan, bat egiten eta xaxatzen jakitearena.

Guk, emakumeok, entzuteko gaitasun hori lortu dugu eta akordio batera iristeko oso garrantzitsua eta beharrezkoa den zerbait lortu dugu: beste emakumearen alde positiboa defendatzea. Aurrean dudan pertsonak ere bere egia du. Ezberdina izateagatik, beste planteamendu politiko bat izate hutsagatik, ezin dut baztertu, bere ideia ere kontuan hartu behar dut. Ezinbestekoa da bere ideiak entzutea, errespetatzea, eta gustatzen ez bazaizkit... ziur asko gutxieneko akordio eta adostasun batzuk lortu ahalko ditugu.

Orduak sartuz, diskrezio handienarekin, guk egin genuena aurreko legegintzaldian Eusko Jaurlaritzan ere gertatu zen: hiru lege onartu ziren eta horiek defendatu zituztenak emakumeak izan ziren. Hitzaldi hauetaz arduratu zirenak hiru emakume izan ziren eta eskerrak horri, ez bakarrik hitzaldiak defendatzeari eta aurkezteari, baizik eta baita elkar ulertze batera iristeko pasilloetan egin behar den lanari eta Euskadirentzat hiru lege garrantzitsu hauek onartzeari ere.

Horietako bat "Elkarketa zibilen Legea" delakoa da, beste bat "Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako legea" eta azkena "Adingabeen Legea", onarpen handia-

goa izan zuena. Hiru legeak oso garrantzitsuak dira, bai emakumeentzat, bai gure txikientzat, etorkizuneko herritar horientzat.

Emakumezko legebiltzarkideen ekintzen emaitza positiboak baloratu eta akordio batera iritsi gintezkeela konturatu ginen, eta berau bilatu beharra zegoela. Horretarako ez da beharrezkoa hizketa modu bera erabiltzea, hizkuntza bera izatea garrantzitsua den arren. Gizonek hizketa modu bera erabiltzen dute beti eta beharrezkoa zaigu hori gainditzea, horretarako esanahi bera duten hitzak, sinonimoak, erabiltzea.

Horrela, gure lehenengo testua egokitu genuen: hiru printzipio garrantzitsu horiek kontuan hartuz jendaurrean aurkeztu genuen lehendabiziko dokumentua, hitzaldiaren hasieran esan bezala, 2006ko apirilaren 6an. Badira berrogei urte horrela bizi garela eta uste dut herritar guztiok hainbeste nahi dugun bakearen alde lan egin behar dugula. Eta zentzu honetan, ados nago aurreko hizlariarekin, berak esan bezala munduko beste gatazka politiko eta bake prozesu batzuetan emakumeak batera lan egiten ari direlako, guztiak dira mugimendu feministetakoak, sare sozialetan lan egindakoak. Badakigu taldean lan egitea zer den, emakume komunitateak eratzea eta azken horiek hedatzea. Horregatik, betidanik taldean lan egin izan dugu, merezi dugun boterearen %50era iristeko komunitatean lan egin behar baitugu. Bestela, indibidualki ez ginateke sekula botere horretara iritsiko. Esan dudana bezala, bakea lortzeko lana egitea guztion, gizon zein emakume, arduradana da. Pentsamendu kritikoa izan behar dugu eta bakearen aldeko emakume aktibistak izan behar dugu. Azken finean, pentsamendu kritikoa, taldean lan egitea, mugimendu feministetan lan egitea... lan hori herriak egin behar du, subiranotasuna bere eskuetan baitago.

Ikusi dugun bezala, azken bake prozesu honetan mugimendu ezberdinak sortu dira. Nafarroan artistez osatutako mugimendua sortu da, zaharren plataforma bat, "Mayores por la paz". Eta zer dela eta sortu ahal izan da? Bake prozesu batean geundelako eta apustua, beti beharrezkoa eta ongietorria bada ere, askoz errazagoa delako. AHOTSAK horren aurrekoa da, ez zegoen bake prozesurik eta bake horretara iristeko lana gogorragoa izan zen. Baina horrek, azkenean, mugimendua indartzen du, autoestima igotzen eta konfiantza sortzen.

Bigarren premisa garrantzitsua proiektu politiko guztiak defendatu daitezkeela zen. Ezin dugu inor baztertu, emakume guztiok balio dugu proiektu politiko bat aurrera atera eta defendatzeko. Hori bai, argi izan behar dugu indarkeriazko testuinguru batean, giza eskubideak urratzen diren testuinguru batean, ezinezkoa zaigula ezer defendatzea.

Hirugarren premisa euskal gizarteak beste proiektu soziopolitiko eta juridiko bat onartzen badu berau errespetatu eta, beraz, bermatu beharra dagoela zen. Guk, emakumeok, zerbait aurrera atera nahi badugu, aukera hori ematen badigute eta onartzen badugu, errespetatu egin beharko litzateke.

Gizonek ez zituzten idatziz jaso guretzako garrantzitsuak diren hiru premisa horiek. Guk, emakumeok, hiru orri idatzi genituen, esfortzu handiarekin, eta horretarako urte batzuk behar izan genituen, baina uste dut merezi izan zuela. Eta guk, emakumeok, diot mugimendu feministaren ekarpen garrantzitsuak eta beharrezkoak kontuan hartu zirelako.

Hurrengo urratsa aipaturikoa jendaurrean aurkeztu beharra izan zen, gure lana gizar-tean aurkeztea, eta hori egin genuen 2006ko apirilaren 8an, Donostiako Miramar Jauregian. Gure dokumentua hiru hizkuntzatan banatu genuen, Euskadik, Nafarroak eta Iparraldeko ordezkariak egon behar zutelako pentsatu baikenuen. Egun handia izan zen: izugarrizko lanaren ostean emaitzak ikusi genituen. Eta orain zera galdetuko diozue zeuen buruari, eta ondoren zer? Utzi? Ez. Herriz herri, plazaz plaza joatea erabaki genuen, gure dokumentuak, proposamenak eta lanak herritarrei, herri korporazioei, alderdi politiko ezberdinei etab. aurkezteko.

Aurkezpen horien bitartez jende asko proiektuan inplikatzeko lortu dugu eta herrieta-ko eta hirietako mugimendu feminista atxikipen talderik garrantzitsuena bihurtu da.

Mugimendu feministek gatazka guztietan parte hartzen dute. Nazio Batuen ebazpen bat dugu, 1325a, gatazkak konpontzeko mahaia, hitz egiteko mahaia eta mahai politi-koak, sortzen direnean emakume kopurua kontuan hartzea beharrezkoa dela eta emaku-meen gutxiengoaren kopurua %30ekoa izan behar duela dioena. Eta hori onartuta dago, eta hori munduko herrialde guztiek onartu dute. Baina hori praktikan gertatzen al da? Ez. Ez berriro ere. Guk emakumeok ere kontuan hartu genuen, azken finean Nazio Batuen ebaz-pena baitzen eta bere babesa bilatu baikenuen, tentuz.

2004an Wangari Maathai izeneko Nigeriako emakume beltz eta harrigarriari Bakearen Nobel Saria eman zioten. Berarekin egon ginen, Keniako emakumeekin lan egin baitzuen. Kenian gatazka eta gerra ugari dago eta Maathai andreak beti bakearen alde lan egin izan du. Keniarentzat oso garrantzitsua den beste proiektu bat ere badu, hots, Keniari bere kolore berdea itzultzeko zuhaitzak landatzea. Pentsatu dugu proiektu hori berarekin batera egitea, gurekin oso ados baitago. Euskadin guretzat sinbolikoak diren bi zuhaitz ditugu. Bat "Gernikako Arbola" da eta bestea Iparralden dago, kostaldeko herri polit batean. Tira, guk ere bi sinbolo horiek berreskuratu ditugu eta herri bakoitzean zuhaitz bat landatu dugu, herri bakoitzaren bakerako sinbolo gisa. Zuhaitz horretan elkar-tuko gara gu, emakumeok, batzen gaituen lekutik, gure esaldiak dioten bezala: "AHOTSAK, batzen gaituenetik".

Eta horretan gaude momentu honetan. Lehenik eta behin landatuko ditugun zuhai-tzak erosteko dirua biltzen. Gure diskurtso, hitzaldi eta hau bezalako konferentzietan mota guztietako pertsonak elkartzen gara. Eta hori, Kontxi Bilbao presidenteordeak dioten beza-la, "hori ez da kristorena, kristorena eta bere amarena ere bada, Ezker Batuaren mitine-tan lau garelako, ez gehiago, eta betikoak, etxeok. Baina hona natorrenean, "Ahotsak"-en ordezkari gisa, denetik eta gauza harrigarriak topatzen ditut". Hori ez dakit nongoa delako, edo ez dakit zein ideia politiko dituelako... herri berean elkarri hitz egiten ez dio-tenak elkartzen dira. Hori guztiak hemen elkartzen dira eta hitz egiten hasten dira. Eta hurrengo egunean kafe bat hartzeko geratzen dira. Eta honelakoak esaten dituzte: "20 urte bizilagunak ginela eta ezer esan gabe. Beste ideia ezberdin batzuk, beste ikuspuntu ezberdin batzuk dituzulako." Hona etortzen dira, elkarri entzuten diote, emakume bakoitza zein ezberdina den ikusten dute eta hurrengo egunean kafe bat hartzeko geratzen dira. Hori harrigarria da.

Orain arte esan dizuedan guztia oso positiboa eta konstruktiboa da. Bake prozesu bat bizi eta lantzen dugunean oso polita da, oso atsegina, baina, noski, abenduan Barajasen,

T4an, izan genuenarekin, gauzek bat-batean okerrera egin zuten. Hori ere gainditu beharra dago gu alderdi politiko bat ez garelako. Gu emakumeak gara eta emakumeak garen aldetik hizketakideak izan nahi dugu. Horretarako elkartzen gara, egunez egun, egoera gogor eta zail honi aurre egiteko.

Gure artean, norberak pentsatzen zuena folio erdi batean idazteko ardura hartu zuen. Izan ere, nik pentsatzen dudana edo beste pertsona batek pentsatzen duena zeharo ezberdina izango da eta horrek ez gaitu batzen. Eta gure proposamena batasuna da, batzen ez gaituena alde batera uzten dugu eta benetan elkartzen gaituena lantzen jarraitzen dugu. Eta orduan zera esan genuen: "Tira, niretzat dimentsio handiko atentatua izan da, bi hilketarekin, eta beste batentzat, beharbada, zoritxarreko istripu bat izan da, edota gatazkaren ondoriozko istripu bat". Gure beharra beste emakumearen ideiak defendatzea ere bada, edo gutxienez errespetatzea eta horrelaxe egiten jarraitzen dugu. Baina, beti ere, gu alderdi politiko bat ez garela eta, beraz, berau bezala jokatu behar ez dugula kontuan hartuta.

Atentatu bat gertatzen denean, oro har hedabideek berria azaltzen dute, komunikatuak emateko, eta beti berdina, hizketa modu berdina: kondenatzen dut, kondenatzen dut, kondenatzen dut, kondenatzen dut. Zer dela eta erabili behar dugu beti "kondena" hitza? AHOTSAK-ek aurrerapauso bat eman du eta "arbuio" hitza darabil, "gehiegikeria guztiak eta edozein giza eskubideren urraketak arbuizatzea".

Lanean jarraitzen dugu, hilabetero hamabost egunez behin jendaurrean ezer esaten ez dugun arren. Dena ez dago jendeari begira egin edo defendatu beharrik. Horrelako akordioetara iristeko pribatuan, diskretuki, lan egin beharra dago, urrats esanguratsuak emateko, aurrera jarraitzeko. Gutariko bakoitzak gure ondorio eta hausnarketa pertsonalak izan beharko ditugu.

Zoritxarreko atentatua baino egun batzuk lehenago, Euskaldunan 3.500 emakume elkartu ginen eta zoragarria izan zen. Leku bat, goiz bat, barre batzuk, negar batzuk partekatu nahi izan genituen eta, gauza guztien gainetik, emakume guztiok AHOTSAK-en partaide sentitu gintezela eta bakearen aldeko emakume aktibistak izan gintezela.

Itzul gaitezen berriro ere gure garaietara, su-etenaren amaierara. Elkartzen jarraitzen dugu gauzak ez direlako horrelako atentatuen bidez eteten, eta gure lana da egoera injustu hori berriro errepikatu ez dadila lortzea. Horretarako lan egin behar dugu, eta emakumeok gehiago inplikatu behar dugu, horrek izan behar baitu gure boterea, hori baita gure talentua, eta gizarteari erakutsi behar diogu. Eta hemen zaudeten emakumeok ere talentu hori duzue eta barneratu egin behar diguzue eta egoeraren normalizazioaren aldeko agente eta bake sortzaileak izaten jarraitu behar duzue.

Amaitzeko, uste dut XXI. mendea gurea dela, emakumeona, eta mende honetan harri-garriak bezain beharrezkoak diren proposamenak lortuko ditugu. Sentitzen dut gizonengatik! Eskerrik asko.





**MAHAI-INGURUA:**

**PRAKTIKA KULTURALA  
VERSUS  
GIZA ESKUBIDEAK**

**Daniel Álvarez jauna (moderatzaileria)**

*Kazetaria*

**Ana Gris andrea**

*SOS RACISMOko kidea*

**Begoña Pecharromán andrea**

*FARAPIko Antropologiako ikertzailea*

**Ainhoa Flecha Fernández de Sanmamed andrea**

*Soziologoa eta Hezkuntza, Identitate kulturala eta Genero-ikertokiko  
ikertzailea. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa*



## **PARTE HARTZAILEEN AURKEZPENA: DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzaila)**

**ANA GRIS andrea.** Argentinarra eta SOS RACISMO-ko kidea, pertsona etorkinen eskubideak defendatzen eta eskubide horien urraketak salatzen dituen erakundea. Euskadi guztian lan egiten du eta Bilbon, Gasteizen eta Donostian dituzte egoitza nagusiak. Bi ardatz nagusi dituzte: salaketa (eskubide juridikoak eta atzerritarrei buruzko legearekin lotutako kontuak) eta sensibilizazioa (hitzaldi eta jardunaldien bitartez). Generoaren gaiari dagokionez, behar espezifikoak dituzten emakume etorkinekin eta beren jatorrizko herrialdeetan bizi diren emakumeekin lan egiten du.

**BEGOÑA PECHARROMÁN andrea.** Farapi Aholkularitzako kidea, azken 15 urteak daramatza Gizarte Antropologiarekin lotutako ikerketa gaietaz arduratzen. Bere planteamendua gizartearen "kanpoaldetik" egindako begirada kritikoa da. Horrela, gure tradizioak ezbaian jartzen ditu.

**AINHOA FLECHA andrea.** Soziologoa eta kataluniarra da. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan lan egiten du Ikerketa Zentroko ikertzaile gisa, Generoa, Nortasun Kulturala eta Hezkuntzarekin lotuta. Hiru ikerketa ardatz ditu: lehen eta bigarren hezkuntzako eta unibertsitateetako genero indarkeriaren prebentziozko sozializazioa. "Emakumeak kulturen artean" izendaturiko bigarren lan ardatza, kultura eta emakume guztiak feminismoaren mugimenduan inplikatu nahi dituen proiektua, horrela, emakume guztion artean, feminismoa eta gizartea eraiki ahal izateko. Eta azkenik, hirugarren ardatza "maskulinitate berriei" buruzkoa da. Bertan maskulinitate tradizionala ezbaian jartzen du eta maskulinitate berriak nola sortzen diren edota, hobeto esateko, betidanik existitu arren ezkutatuta egon diren maskulinitateak aditzera nola ematen diren aztertzen du.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzaila): Emakumeen funtsezko eskubideak urratzen dituzten eta hemen existitzen diren praktika kulturaleri buruz hausnartzea gustatuko litzaidake, emakumeek alardeetan parte hartu ezin izatea edo elkarte gastronomikoetan sartu ezin izatea, esate baterako, burkaren erabilera, genitalen edo klitorisaren mutilazioa eta bestelako praktika batzuekin alderatuta.**

## **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Nire iritziz, beharrezkoa da aipatu dituzun gaiak ezberdintzea, dena ez baita gauza bera. Genitalen mutilazioa emakumeen giza eskubideen aurkako atentatua da eta zapia, berriz, kanpoko elementua da, estetikoa. Alardeei dagokienez, gure taldean lan egiten duen emakume antropologo batek gaiari buruzko lan bat egin zuen eta alardeak denboraren poderioz aldatuz joan direla, beti gauza bera izan ez direla, alegia, ondorioztatu zuen. Horrenbestez, zergatik ezin diegu emakumei alardeetan parte hartzen utzi. Gainera, aipatutako lan etnografikoan argi ikus daiteke alardeek maskulinitate hegemonikoa bultzatzeko balio izan dutela. Horregatik, baldintza nagusia emakumeak baztertea

da. Era berean, alardeak izaera militar eta hierarkikoko festak dira eta horregatik gizonen botere patriarkala errotzen dute. Azkenik, gai honekin lotuta, justifikazio biologikoez eta naturaz hitz egin ohi da, "nik geneetan daramat", gizonen parte hartze eskusiboa justifikatzeko. Hori arriskutsua iruditzen zait.

### **AINHOA FLECHA andrea**

Begoñak esan bezala, moderatzaileak aipatutako praktika kulturalak ezberdintzea eta sailkatzea beharrezkoa da. Horietako bakoitza ezberdina da. Ezbairik gabe, edozein eztabaida kulturalak bere emakumezko protagonistak, tokian tokiko pertsonak, alardean parte hartzen dutenak kontuan hartu behar ditu, horrela erantzun egokia eman ahal izateko eta oposizio sendoa eragiteko. Alardeei buruz mass media delakoetan agertzen dena dakit gutxi gorabehera. Zapiari berari dagokionez, inongo giza eskubiderik urratzen ez duela pentsatzen dut. Emakumeen eskubideak urratzen dituen zapia soinean eramateko edo ez eramateko obligazioa edo debekua da, Turkiako unibertsitateetan gertatu zen bezala, bertan militarrek emakumeak hijap-a kentzera derrigortu baitzituzten.

### **ANA GRIS andrea**

Ados nago nire mahaikideekin. Gainontzeko kulturei luzatzen diegun begirada dominatzailearena da, hegemonikoa eta kolonialista. Hori dela eta garrantzitsua da gainontzeko kulturei "gure kulturaren egiaren" bitartez ez begiratzea. Latinoamerikako herrialde askotan emakumeek arropa gutxi jantzi ohi dute eta oso herrialde matxistak dira, emakumeek hijap-a jantzen duten arabiar kulturako herrialdeak baino askoz matxistagoak. Beraz, arropa ez da gizarte baten matxismo mailaren adierazle egokia. Bestalde, kultura bakoitzean, feminismoaren alde borrokatzen eta lan egiten duten emakumeak daude. Hala eta guztiz ere, kontu horiek ez dira hedabideetan agertzen. Herrialde batzuetan Estatua eta kultura elkarrekiko oso lotuta daude eta beste herrialde batzuetan, berriz, ez.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea): Erlijioa erabakiorra al da emakumeen hezkuntzaren eremuan?**

### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Ezin dugu katolizismoari edo islamari buruz generikoki hitz egin, herrialde bakoitzean erlijioaz egiten duten interpretazioa oso ezberdina baita. Bestalde, nik zalantzan jarritzen dut, Espainian esaterako, estatu laikoa lortu nahi izatearen ideia, estatu laiko batek erlijio aniztasuna errespetatu eta bultzatu beharko lituzkeelako. Eta hemen instituzio katolikoak Espainiako herritar guztien diru laguntza jasotzen du, gainontzeko erlijioekin gertatzen ez den bezala. Horrenbestez, zaila zaigu estatu laiko bat izateko bidean gaude la esatea, herrialde honetako erlijioen egoerak oso ezberdinak direla kontuan hartuz gero.

### **AINHOA FLECHA andrea**

Erljioetako goi-karguen artean sexismo dosi handiak existitzen dira, baina ni ez nintzateke erlijioen eremura soilik mugatuko. Unibertsitateetako goi-karguen artean, komunistak bezalako alderdi politikoetan existitzen diren sexismo dosi handiei buruz hausnartu beharko genuke. Beharbada egia da instituzio katolikoak kontu sexistei dagokienez mantsuago egiten duela aurrera, baina erlijioen oinarrian ere botere egitura patriarkalak ezbaian jartzen dituzten pertsona asko daude.

### **ANA GRIS andrea**

Erljioa edozein dela ere ezinbestekoa da Estatua eta erljioa banatzea.

### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Uste dut ez dela egokia sexismoaren iturri bakarra erljioa dela pentsatzea, emakumeen egoerari kalte handia egin diola egia den arren. Diskurtso zientifikoak emakumeei egin dien kalte izugarria ere kontuan hartu behar dugu, erljioak baino askoz pisu handiagoa izan baitu emakumeak gizonarekiko duen gutxiagotasuna azaltzeko. Zorionez geroz eta emakumezko zientzialari gehiago dago gizon zientzialariei aurre egiteko.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailerak): Zein da hedabideek Gran Hermano, Cambio Radical edo Super Modelo bezalako programen bitartez gazteei helarazten dieten mezua edo "inputa"?**

### **ANA GRIS andrea**

Harrigarria da neska batek, buruan zapi bat daramalako edo ez daramalako, gizarte mailan kezka piztea. Hala ere, badirudi herrialde hau ebakuntza estetiko gehien egiteko eskaririk handiena duen herrialdea dela jakiteak ez duela gure gizartea kezkatzen. Emakunderen txosten berriaren arabera "tratu txarren ondoriozko salaketan %40tik gora, hogeita hamabi urtetik beherako emakumeek egiten dituzte". Erantzuten jakin ez dugun hezkuntza arazo baten aurrean gaude.

### **AINHOA FLECHA andrea**

Duela gutxi 15 eta 16 urteko mutil gazteekin eztabaida bat izan nuen eta haien arabera bi emakume mota daude: "zerriak" eta "zerriak ez direnak". Hura bezalako egoerak ohikoak dira oraindik ere.

### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Gazteen hezkuntza kontu zaila da. Indarkeriaren gaiari dagokionez, berau munduko kultura guztietan oso sustraituta dago eta oso gutxi egiten da gatazkak indarkeria erabili gabe konpontzeko. Genero indarkeriari dagokionez, Andres Montorok, EMAKUNDEren SAREko jardunaldi batzuetan, honakoa zioen giza eskubideei buruz: "emakumeek tratatu txarrak pairatzen dituztenean erasotzaileak giza eskubideekin lotutako 18 artikulua urratzen ditu". Giza eskubideak zinez errespetatuko dituen gizarte bat lortu nahi badugu, gizarte mailan elkarbizitzeko beste modu batzuetara jotzea beharrezkoa da. Askoz gauza gehiago egin beharko lirateke gure eguneroko bizitzatik indarkeriaren kultura baztertzeko eta indarkeria bizimodu gisa deslegitimizatzen.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzailea):** Lehen aipatu bezala, EMAKUNDEren txosten berri baten arabera genero indarkeriaren salaketen %40tik gora 32 urte-tik beherako emakumeek egiten dituzte. Zein da zifra horien interpretazioa? Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako kontzientziazio gehiago existitzen da edo egoerak okerrera egin du?

### **ANA GRIS andrea**

Egia da orain kontzientziazio handiagoa existitzen dela, baina asko dago oraindik egiteko. Izan ere, kontuan hartzen ez diren eguneroko eraso asko gertatzen dira. Jende asko oker dago eraso matxista "ukabilkada" hutsa besterik ez dela pentsatzean, eraso matxistak guk uste baino arruntagoak eta ikusteziagoak baitira. Eskola eta familia oso agente garrantzitsuak dira emakumeen kontzientzia esnatzeko.

### **AINHOA FLECHA andrea**

Emakumeen aldeko kontzientziazio handiagoa dago, baina oraindik ere emakume askok tratatu txarrak pairatzen dituzte. Horrek hasiera bateko feministek "independentzia ekonomikoarekin emakumeen aurkako problematika eta beste arazo batzuk desagertuko zirela" ziotenean aurreikusten zutena bete ez dela erakusten du. Ezbairik gabe, emakumeen aurkako indarkeriak eskoletan umeek jasotzen duten hezkuntzarekin oso lotuta dago. Mutil batek neska bati gona altxatzen badio txarto dago "ez da ezer" mezua transmititzea. Hausnarketarako mezu bat helarazi beharra dago, egindakoa emakume baten aurkako eraso dela adierazteko.

### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Duela zerbait "El amor no es la ostia-Maitasuna ez da muturrekoa" zioen kanpaina martxan jarri zen. Aipatutako kanpainak bi kontzeptu nagusi ditu: alde batetik, maskuli-

nitatearekin lotzen den irudia, hots, gizonak oldakorra izan behar duela dioen irudia. Agresibitate hori ez da mutilaren eta neskaren artean soilik gertatzen, baizik eta baita mutilen artean ere. Zalantzarik gabe, ezinbestekoa da gazteei indarkeriarik erabili gabe gizakiak izan daitezen aukerak eskaintzea. Eta maitasunari dagokionez, emakumeek "maitasunarengatik dena onartu beharra dagoela" uste dute. Maitasun erromantikoaren kontzeptua oso errotuta dago gure gizarteko emakume eta gizonen gogoan eta horrek ez ditut indarkeriarik gabeko harremanak ahalbidetzen.

**DANIEL ÁLVAREZ jauna (moderatzaila): Emakumeen aurkako tratu txarrek eta eskubide urraketek alardea bezalako beste eraso batzuek baino onarpen eskasagoa dute gure gizartean.**

**ANA GRIS andrea**

Zalantzarik gabe, gizarteak ez ditu oraindik emakumeen eskubideen urraketak onartu.

**AINHOA FLECHA andrea**

Talde ezberdinen artean, emakumeak dira egoera okerrenean daudenak, eta horrekin lotuta dago emakumeen txirotasuna.

**BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Lehen ere esan dudana bezala, nire adiskide antropologoak emakumeen parte hartzea debekatzeko Alardeak zituen argudio historikoak desegokiak zirela ondorioztatu zuen. Historian oinarritutako argudio hori baztertu ostean, beste argudio bat ere badago, herriar gehienek, emakume zein gizonen, demokratikoki, emakumeek alardean parte hartzea nahi ez dutela azpimarratzen duena. Gehiengo batek emakumeek alardean parte har ez dezatela nahi izateak ez du inondik inora ere egoera bidezkoagoa bihurtzen edota giza eskubideak errespetatzen direla bermatzen. Giza eskubideekiko errespetu falta horren adibidea Alemanian topatzen dugu, bigarren mundu gerran, bertako biztanle gehienek juduak hiltzea beharrezkoa zela esaten baitzuten. Gaur egun, herrialde gehienek testuinguru matxista dute, gizon zein emakume, eta bertan gizonen botere hegemonikoarekin lotutako ideiak nagusitzen dira.

**Entzuleen arteko pertsona batek hezitzeko modu patriarkala eta matxista defendatuko ez duen hezkuntza programaren bati buruz hitz egiteko eskatu du.**

### **AINHOA FLECHA andrea**

Maitasuna modu osasungarriago batean bizitzearekin lotutako hezkuntza programa gutxi dago. Gure gizarteak ideian hezitzen jarraitzen du, mass media delakoen, aldizkarien eta bestelakoen bitartez, eta bertan maitasuna indarkeriarekin lotu ohi da. Gai afektibo sexualari dagokionez, "El amor en la sociedad del riesgo" Jesús Gómezen liburu esanguratsua dago. Liburu horretan egileak LA RAGAZZA eta COSMOPOLITAN bezalako aldizkarien jarraipena egiten du eta argi uzten du azken horietan maitasuna indarkeriarekin lotu ohi dela, indarkeriarekin eta erakarpenarekin. Bestalde, geroz eta joera handiagoa dago emakumeek eta neska gazteek tradizionalki maskulinitate hegemonikoarenak izan diren balioak berenganatzeko. Zalantzarik gabe, gizon guztiek ez dute maskulinitate hegemonikoa islatzen, baina ezin esan dezakegu emakume guztiek berau islatzen ez dutenik. Izan ere, tradizionalki gizonenak izan diren balioak berenganatzen dituzten geroz eta emakume erasotzaile eta oldarkor gehiago dago.

### **ANA GRIS andrea**

Gure errealitatean errealistak izan behar dugu, "gutxi baikara 50 urteko emakume feministak". Mugimendu feministek iradokitzen dituzten hezkuntza proposamenei mar txan jartzeko aurrekontu eskasa izan ohi dute. Horregatik uste dut etxea hezkuntza gune garrantzitsua dela, gizarteak ez baitu ezertan lagundu.

### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Iaz Tarrasan egon ginen eta nerabeekin antzerki ikastaro batzuk egin genituen, gorputzaren bitartez betidanik "emakumeen balioak" eta "gizonen balioak" bezala sailkatuta egon izan diren giza abildadeak eta gaitasunak lantzeko. Emakumeek oro har gizonen munduarekin lotuta egon izan diren balioak, indarkeria, esate baterako, berenganatzen zituztela ohartu ginen. Izan ere, emakumeek baloratu ditzatela nahi dute eta oro har emakumeen munduarekin lotutako balioen bitartez, atsegina eta zuhurra izatea eta zaintzea, esate baterako, gizartearen balorazioa lortzen ez dutela sentitzen dute. Hala eta guztiz ere, gizonen munduarekin lotutako jarrenen bitartez balorazioa eskuratzen dute.

**Entzuleen arteko pertsona batek klitorisaren ablazioaren eta zapia soinean eramatearen arteko aldea zein den jakin nahi du.**

### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Antropologiaren eremuan eztabaida ugari egon izan da beste kultura batzuei gure kulturaren ikuspuntutik erreparatu izan diegunean. Mendebaldeko gizarteak beste kultura batzuekiko begirada etnozentrismo duela kritikatu izan da, badirudi "gure kultura" bes-



teena baino hobe delako. Antropologiaren baitan kulturala izate hutsagatik dena justifikatzen duten mugimendu erlatibistak existitzen dira. Korrante horri aurre egiteko, argudio erlatibista horien atzean izugarrikeria galantak gauzatu direla eta gauzatzen ari direla azpimarratzen duen beste korrante feminista bat sortu da. Zalantzarik gabe, "ez du balio kulturala den guztiak", pertsona baten integritateari edo bere bizitzari, klitorisaren ablazioarekin gertatzen den bezala, erasotzen zaionean "hau kulturala da" esan ezin delako; Kasu horretan emakumeen bizitzari eraso egiten zaio. Aintzat hartu beharreko beste ezau-garri garrantzitsu bat klitorisaren ablazioak islamarekin zerikusirik ez duela da, afrikar tradizioetik sorturikoa denez gero herrialde islamista batzuetan gertatzen den arren.

Buruko zapiari dagokionez, hori eta klitorisaren ablazioa gauza ezberdinak dira. Emakume batek lan egiteko edo hezkuntzarako duen eskubidea mugatzea ezin da justifikatu buruan zapi bat daramalako. Lan egiteko eta hezkuntzarako eskubideek jantzeko modu ororen gaineratik egon beharko lukete. Jantzeko modu horren atzean gizon batek emakumea zapia erabiltzera derrigortzen badu hori beste kontu bat da. Zalantzarik gabe, emakume musulmanei zer nahi duten eta gaiari buruz zer iritzi duten galdetu beharko litzateke. Amaitzeko, antropologiaren arabera "pertsonala dena arrazoi kultural baten ondorioa da".

**Entzuleen arteko beste pertsona batek berdintasun formalaren eta berdintasun erreala arteko hausnarketa bat proposatu du. Familien eta eskolen arteko gaitzespen bikoitza. Eta ezberdintasuna biologian oinarrituz onartzea.**

#### **ANA GRIS andrea**

Emakumeen eta inmigrazioaren arteko paralelismoa existitzen da. Badirudi berdintasun formal bat badagoela, hor nonbait "legearen aurrean denok berdinak gara" idatzita dagoelako. Errealitatea oso ezberdina den arren; argi dagoenez, guztiok ez gara berdinak.

#### **AINHOA FLECHA andrea**

Hezkuntzaren ardura eskolen, familien eta hedabideen eskuetan dago eta hiru eremuak dagokien neurrian arduratu beharko lirateke.

#### **BEGOÑA PECHARROMÁN andrea**

Antropologiak "emakumeak eta gizonak biologikoki ezberdinak garena" defendatzen du eta baieztapen horri buruz hitz egin nahiko nuke. Hala ere, duela gutxi egindako ikerketek gure gorputza eta gure sexua gure ingurunearekiko izan dugun interakzioaren emaitza direla azpimarratzen dute. Gure mintegietako batean, emakume eta gizonen autoarekin lotuta izan duten sozializazio ezberdinari buruz hitz egiten ari ginela, ikasto-

roko emakume batek berak eta bere senarrak gidatzen ez zutela esan zigun, baina bi urte eta erdiko semetxoari autoak izugarri gustatzen zitzaizkiola. Horrela, gizonak autoekiko berezko joera izan behar dutela ondorioztatzen zuen. Nik, orduan, bere semea testuinguru kultural jakin baten emaitza zela azaldu nion, bere semea Amazonian jaio izan balitz autoekiko inongo zaletasunik izango ez zuelako, beste arrazoi batzuen artean, sekula bat bera ere ikusi gabekoa izango zelako. Gure testuinguruaren emaitza gara.

# AMAIERA

**Leire Castillo Galán andrea**

*Galdakaoko Udaleko Aukera Berdintasunerako  
Politika Saileko zinegotzia*

---

Pozten naiz urtetik urtera Galdakaoko udaleko Berdintasunerako herri Plana honakoa bezalako ekimenei esker geroz eta ezagunagoa delako.

Printzipioen deklarazio batzuk asmo politak baino zerbait gehiago direla erakusteko modurik onena da. Zoritxarrez, emakumeok asko dakigu horri buruz, denon artean, gizon zein emakume, elkarbizitza hobetze aldera aurrerapausoak ere ospatu ditugun arren.

Jardunaldi hauetan zehar emakumeen eskubideak aztertu ditugu, iragana, oraina eta geroa, eta bakeak argituriko etorkizun bat sortzeko emakumeak ere errespetatzea funtsezkoa da.

Victoria Camps-ek dioen bezala, "mende amaiera honetan, feminismoak bere amaiera bera eragingo duen aldaketa izugarria jasango du, ez baitago zerbait irabazi izanaren adierazgarri hobeagorik horri buruz hitz egitea alde batera uztea baino, gehiago hitz egitea beharrezkoa ez delako".